



Iturria: *Lora sorta espiritual, ta propositu santuac vicitza barri bat egiteco*,
Pedro Antonio Añibarro. La Lama, 1803.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnibarroLorasorta.htm>

LORA SORTA ESPIRITUALA

Pedro Antonio Añibarro

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

LORA SORTA ESPIRITUALA,
TA PROPOSITU SANTUAK BIZITZA BARRI BAT EGITEKO

Aita Palazios misionariak misiño ondoan emoten zituanak

Fr. Pedro Antonio Añibarrok,
Zarauzko kolejio A. S. Franziskoren ordeako misionariak
Bizkaiko euskeran ifini ditu.

Bear dan legez.

Tolosan: Liburugille don Franzisko la Lamaren etxean.
1803. urtean.



BIZI BEDI JESUS

Misiño santua prediketara, elduten garean errietan, egiten deuskuez ain esker-mesede asko, ta andiak bertako auzo, nagusi, ta txikiak, eze, uste dogu, premiñaturik gagozala, erakutsi, ta adierazotera guztiai eurak gana-ko eskertasun andia gure aldetik; alantxe da; baña izan arren zordun andiak, gu lako pobreak ezin eranzun leioe mesede andi oneei doe nagusiakaz; baña zor guztia kitutu ezin danean, nok esango eztau, alegiñaz eranzun bear dala? Aramen bada non opa dogun, gure biotz eskertuak idoroten daben gitxitxo, adierazoteko gure lealtasuna.

Misiño santuak iraun daben denpora guztian, berein aranza-zikadaz sumindu, ta zatitu doguz zuen biotzak; zuen onerako, ta alde egiteko euretatik era guztiko gaisotasunak; orra bada, ze galanto datorren orain, eurak gozatuteko, lora gozo osagarriak dituan *Lorategi* eder usaintsu bat, zein emoten dogu moldera; ara ze gatik; Pulpitutik ezarten dirian Lorak, ta paperean moldetuten dirianak dauke bardintza, ta antz-irudi bat hortuko lora, ta ol, edo eun baten pintetan dirianakaz; oneek baño aek obeak dira; baña dauke zorigatxa bereala makaldu, ezaindu, ta igartutea.

Gura genduke, pulpitutik egotzi doguzan lorak, luzero, betiko, ta iños igartu baga iraun dagien, ta loratatik, frutu gozo elduak izatera igaro ditezen. Onegatik, bada, eretxi deusku, emotea moldera; moldeturik paperean, aldatu daizuezan zeuroen biotzetara; ta zeruko iñontzaz, zeuroen alegin ardurazkoaz, ta deboziñoazko beroagaz batera, eldu ditezen lora oneek izatera zeuroen arimetan frutu eldu gozoak Jesus gure jabe maitearentzat.

SART-AURREA

zeinetan erakusten dan, zetarako dan Lora-sorta santu au

Anaje maiteak Jesusegan; ara zer dirudigun misiño santuak dirauan eraldiak; egiaz ez besterik, ezpada jazo jakeena Israeldarrai Jordaneko ibai-korrontak igarotean. Urten eben oneek Ejitoko erbestetik, eta ango atsekaba, neke-pen andien azpitik; jarraitu eben ermuko bidea, batzuetan zoriondurik mirari arrigarriakaz, beste batzuetan arikaturik, Jangoikoak euren onerako biralduten eutsezan nekeakaz; baña aror non idoreten dirian beste bein mirari barrien bearturik, igaroteko ibai zabala.

Igaro bear eben ibaia, ta ez egoan zubirik, ez barkurik, ez zetan igaro; urak zirian andiak, korrontak bildurgarriak, ta errekea oxin ondura andikoa. Zer uste dozue jazo zala? Enzun: *Josue agintariaren adi-bidez sartu zirian* sazerdoteak ibaira, ta geratu zirian urik andienen erdian Testamentuko utxa santua lepoan ebeela; au egin, ta beste baga, gelditu zirian bideriozko mendi miragarrien antzera goitik etozen urak; bekoak barriz beranz euren bidea jarraiturik, ur bien erditik egintzan bide leorra, ta oñazpia busti baga, igaro zirian Israeldarrak beste aldera.

Etzan miraria ikusgarri bat, urak geldi-baturik ikustea? Ur bien erditik bide leorra idigiteta? Baña zenbat, uste dozue, iraun ebela urak istanda egin baga? Bakarrik utxa santua euren erdian geldi egontzan bitartean; bada berpetatik artu eben bidea; ta asi zirian ibiltera, ordugiño esturik egozan ur korrontak.

Aramen misiño santu baten jazo oi danaren irudin egiako, baña errukigarri bat. Jesusen misionariak erri baten erdian ifinten dabenean krutze santea, zeñaren antz adigarria zan arako lege zarreko utxea, dirudi, bizio guztiak bildur-izuturik atzeratu, ezkutatu, ta gelditu dituezala euren korronta atsituak; baña zeinbat dirau egotaldi onek? Misiño santuak dirauan aldiak baño asko geiago ez; bada denporau igarorik, eta misionariak Jesusegaz joan, ta arik laster, euren bide, ta korronta galdu ebela zirudien bekatuak, artzen dabe ain bizkortasun, egoa, ta indar andia, eze, dirudi, damaturik geldi egon izanaz, bete, ta aurreratu gura dabela lengo utsunea, ta ego-taldia. Eztakutsuez emen galdurik misionarien lan neke, buru-auste, ta ardurazko alegin guztiak? Zerren, ondu zirianetatik batek,



edo besteak irauen arren bere propositu onetan, azkozaz geiago dira, biur-tzen dirianak lenagoko gaistakerietara.

Baitabere jazoten da, gertaten dana itxasoko ekatxa bildurgarri baten; zeñak dirauan artean, guztia da Jesusi dedarrez deitutea; makaldu, ta otsandu zirian axeak? baketu zan ekatxa? Bada epeldu zan deboziñoa; aztu zan guztia. Onetan jatort gogora gure kolejioko almendru bat; eku-senak ude-barrian loraz bitxiturik, uste izango eban, etzala arbola, ezpada lorategi eder andi apaindu bat; baña ez egoan zer itxadon bere garaurik; bada iñosko alditan ikusi eneutsan almendra garau bat.

Beste onenbeste jazo eztedin arimetan, gogoratu jaku, ta eretxi deusku, opa, ta eskiñitea zuei, adibide dun beste lora dituan *Lora-sorta* bat; euroen bitartez mantendu daizuezan sendotasun irmeaz zeuroen propo-situ onak, ta oneek irauen daien frutu ugariz beterik, ta iños igartu baga egite on guztietan.

Bada egiaz, zer balio dau udebarrian arbolak lora eder ikusgarritz jan-zitea, beinbere fruturik emoten ezpadabe? Zetako da Madrileko bidea eun bider asitea, bide erditik atzera biur-tzen bada? Ozta idoroko da infernuan arima bakar bat, beinik bein kristiñaua, zerurako pausuren batzuk emon etzituanik; baña zer dau orregaz? Andiagoa, samiñagoa izatea bere neke-pena. Frutu ugarien itxaromena euki danean, geiago sentietan da abustu eskas urria. Gogatu egizue, ze pena errukigarria izango litekean aberats itsasoz datorren batena, igaro ezkeroko milla gora bera ta pelligru, irunsi ezkeroko eun ekatx bildurgarri, galduko balitz kaia, edo portuaren aurrez aur, eta ondatuko balitz ondasun ontzi ta guzti; ya ekusela bere etxea, ta bereai laztan gozo bat emoteko legez besoak zabalik joianean.

Adu gaistoko infernutarra! diñot nik orain, a, aldi baten jarraitu ezkeroko Jesusi, iges eginik bera ganik, ta eginik Satanasen bandera-pekoka, ondatu zana betiko infernuan! Ze gogaiturik egongo dan! Ikaratu zaitzeze, neure maiteak, gogoraturik Judasen zorrigatx adu gaistokoa; ta beinbere aztu ezpedi zeuroen gomutetik Jesusen sententziau, diñoanean: *bakarrrik au salbauko dala, azken giño ondo irauten dabena*. Bildurtu gaiztezan bada, ta au geiago, gomuteteaz, ze gitxik irabazten daben, azkenera artean ondo irautea.

Zerren, zer adierazo gura izango deusku Jesussek esateaz, *au bakarrrik salbauko dala?* Eztiño aek bakarrrik, ezpada au. Uste dot adietan emon gura deuskula, len esan dodana, au da, gitxitxo, ta neurri laburrekoak diriala ondo ta luzero dirauenak, asko izan arren Jaunaren serbizioan asten dirianak. Ederto esa eban san Pablok: Israeldarren gertaldiak,

gureen antz-irudikoak ziriala; ta nire eretxian, eztakit zetan au obeto ikus-ten dan, oraintxe erakustera noianean baño.

Asko ta txito asko zirian faraon gogorraren aginduaren azpitik urten eben isaldarrak, ta guztiz ondo asi eben erri santurako urtetea. Ondo; baña zeinbat eldu zirian Israelgo erri zorionekora? Bakarrik bi, Josue, ta Kaleb. Aramen misiño santu baten irudi egiazko, baña negargarri bat! Gauza miragarri bat da, ikustea misiño baten, largarik deabrua ta bekatua, zeruko bide arteza asten daben arimak; baña zeinbat dira luzero jarraitu ta irauten dabenak? Esango badot egia, gitxitxo.

Bitartean, anaje maiteak; nok segurutuko deutsue, danez au azke-nengo misiñoa? Izango dan ala ez gerorengoa orain artu dozuen propo-situ ta onduteko gogo santua? Eukiko dabenez beste bein zuekaz miseri-kordiarik Jesusek? Zorionekoak ondo irauten dabenak! Bai, ze bestela, zer jazoko da zuekaz? Ara: ikusirik kolejio onetako guardianak batek, beinbe-re fruturik ez ekarrela len esan dodan almendro eroak, ikusirik alper alpe-rrik betetan ebalak hortuko lurra, agindu eban, jo sustraitik, ta bota egiee-la surtara. Aramen Ebanjelioko ikoaren irudia berbera. Iru urte zan iko-rik emon baga, lurra galtzen egoala; sarri joan zan jabea ikustera, fruturik bekarren, baña beti alperrik; ta gogaiturik ikusteaz ganora baga beteten ebalak lurra, esa eutsan iraindurik Hortulauari; *Ea, ebagi egizu iko ori, zetako itxiko dogu doarik lurra jaten?* Zeinbat bekatarigaz egin oi dau auxe eguno-ro Jangoikoak?

Esan egidazue bada orain: zenbat misiño santu daroazue enzunik? Zenbat konfesiño jeneral egin eztozue? Zenbat gogo ta asmo on artu eztozue, onduteko zeuroen bizitza deungak? Bete dozue? Iraun dozue? Ai! Bearren dozuen gauzan; baña zer da ardura merezietan dabena, ezpa-da salbaziñoa? Lanik andienetan, ta zeregiñik ardurazkoenean egiten dozue umetxikien jokoaren antzera. Lotsatuko zintekez, gizon prestu bategaz egitea, gure Jangoiko maiteaz egiten dozuena. Baña nos artean? Ah! auxe ameneko izango da gerorengo urtea.

Uste dot, amarik maite gozo Maria santisima izan dala bitarteko bere seme laztanaz; ta Ebanjelioko hortulauak baño bitartetasun egiazkoaz erregutu izango deutsela, bete eztidilla oraingoan bere sententzia gogorra. Baña gogoratu egizueze, ta bildurtu zaitzeze Ebanjelioko berbakaz. *Jauna, ziñoan hortulauak, itxadon egizu arren aurten, bearbada frutua ekarriko dau, ta ezpadakar, ebagi zijiñei*. Ara, ze denpora laburra eskatuten daben; bakarrrik urte bat; baña nok daki, gurea laburrago izango danez? O gizonen itsuta-sun eroa! O neure Jesus maitea, ta emon al baneci mundu guztian enzun al



litekean dedar andi bat! Jauna, irazartu, ta argitu egizuz gizonak, zeintzukaitek ill zinian krutze baten.

Beinik bein ondo dakigu, gorputzeko gatx bakotxak dituan legez bere medizina osagarriak; alan arimeko gatxak bere dituezala euren sendagarri berezkoak. Baña nok eztaki, osagarri guztirokoen antzera, oi diriala gauza batzuk, ontsuak izanik gatx guztientzat, ontsuak diriala gatx bakarentzat? Esaterako: dietea, edo gitxi jan-edatea da ain ontsua, ta osasun-emolle alasokoa, eze, botikan dirian osagarri guztiak eztauke zer ikusi bere aldean; salduko balitz, elegoke zegaz erosi; mundua danik ona asmatu dirian osagarri, ta botika guztiak baño, geiago osatu ditu beronek bakarrik.

Onelan, bada, arimeko gatxetan bere idoroten dira osagarri batzuk, osasuntsuak izanik gatxa guztientzat, ontsuak dirianak gatxa bakotxarentzat. Guk emon gura izan arren osagarri banakak gatx bakotxentzat, eztaukagu astirik, ez lekurik onerarako, misioño zeregin andiakaz; eta zuen artean bere asko zale eztira onelako adi-bide zeruzkoak irakurteko; orregaitik obetzat daukagu, osagarri guztirokoak zuei emotea. Ganekoan neure maiteak Jesusegan, misioño santuan luzaro, ta astiro enzun deuskuzuezan adi-bidetatik, artu egizuez, bearren dozuezenak zeuroen gatxetarako, baña ez urten ezetan zeuroen konfesoren esanetik.

Egizue onetan, egiten oi dabena, sartzen danak lorazko jardin eder baten; bada onen adierantzakoa dirudit misioño santu batek; sartzen dana lorategi baten, mirariturik dago, lora guztiai adi; baña eztau eskua esarten guztiai, ezpada ondoen deritxakazan eder usaintsuenai; eta eurekaz egiten dau lora-pilla eder bat, lora-sorta polit bat.

Guri, bada, jatorkuna da, zuei opa, ta eskiñitea era guztiko lorak dituan *Lora-tegi* bat, baña txito usaintsuak, ta guztiz ederrak. Kontuz bada arren gorde egizuez Jesus gatik; ta ez begiratu ainbeste, noren eskuz egiñak, ta ze borondate onaz opa deusueguzan; aditu bai, diriala zeuroen arimen zorion betikorako, ta Jesusen honra, ta gloria andienerako; bada bere bost lлага miragarrien erreberenzian, bost lora eukiko ditu lora-sorta, edo *Lora-tegi* onek.

LENENGO LOREA

Zeuroen biotzean ifini bear dozuen lenengo *Lorea*, da, artzea gogo sendo benetako bat, aurrerantzean, ta gaur-geiago alde egiteko okasiño bekatutsuak, ta iges egiteko zeuroen arimea lenago ezaindu, ta ill deutsuen gal-bide, ta ondamentietatik. Eta alan, dakizu urlia persona, edo besteaz lagundu, edo berba egitea gaitik jatortzuzala gogoraziño loiak, gurari txarrak, ta aragizko tentamenduak? Urrindu zaite bera ganik; ebagi egizu bere adiskidetasuna; jatortzuz, or-emen zabaldurik, non nai deslai dabiltzelako zure zenzunak? batu egizuz. Ezarten dozuz juramentuak, biaraok, añenak; aserraturen zara, ordietan zara urlia etxean sartu, edo lagun gaistoakaz batuten zarealako? Alde egizuz; ken ortik; larga ori.

Onetara, billatu, ta arakatu bear ditu bakotxak bere biotzeko ezkuak, (eta onetan betiraun guztiko salbaziñoa baxen gitxiago ez joako), eta billatu zein dan, ta nondik datorren bere bizio bakarren sustraia; bada jakin eze, eztaogoan legez gindarik aretx gindatik jaioten eztanik; alan ezta idoroko bekatuak, bere sustrai jatorrizko, edo okasiño deungaren baterik azten eztanik.

Sinistu eidazue, neure maiteak Jesusegan, eze, irekaste au gorde ezik, ill-otzituak urtengo dabela zuen berotasunik exetuenak. Zer bada? jausi zan Salomon, jausi zan Dabid, jausi zan Sanson, jausi zan san Pedro pelligruzko okasiñoan ifinirik; bada gu argalok zelan jausi, ta laprast egingo eztozu bekatuan, gatx-bide ta ondamenti deungetatik alde egin ezik? Alperrik negar egingo dozue; utsak izango dira oraziño, ta libru santuen irakurtzak; igartuak urtengo dabe zuen egitekorik onenak; ta eztira presu zuen propositurik sendoenak, okasiño bekatutsuetatik urrinduten etzarean artean; lagun txarretatik iges egiten eztozuen bitartean.

Ain benetako egia da au, eze, Jangoikoak berak dauko baiezpurik; enzun ez niri, ezpada Espiritu Santuari: *qui amat periculum*, diño, *peribit in illo*: ifinten dana pelligruan galduko da berean. Gura dozue ez jausi, ta ez galdu betiko? Bada arin-lasterka urrindu zaiteze okasiño, ta bekatu-bidetik. Billostu arren gindaz beterik dagoan arbola bat, ikusiko dozue urren-go urtenan garauz beterik. Baña ez alan aterako balitz sustraitik. Zetako, bada, dira oraingiñoeko egite on guztiak, biurtzen bazara barrero lenagoko gal-bideetara? Ukatu ezin leian egia da, eztaala benetako konbersiño, edo biurrerea, kentzen ezpada borondatezko okasiño urkoa. Baña dana dala okasiñoa, nai borondatearen kontrako, nekez batek asko iraungo dau



grazian, okasiñoa kentzen eztan artean. Beintzat gauza bildurgarria da; bada lapurra bizi da etxe barruan; beragaz artu bear dira neurri estuak, irauteko jausi baga, eta izateko konfesiñoa ona.

Kendu arren itogiñatik jausi dan ura, beste bein bere jausiko da, euriari badiñotso, tella urratua kentzen ezpada. Gure arimetan bere sartuko dira bekatuen ur edenduak, zarratuten ezpada okasiñoak idigi zituan atak. Ez eikezue egin, oi ebana arotz batek, zeñak, emen egoan tella ausia ifinteban an; eukirik beti itoz-ura, euki leientzak beti non bear egin. Era onetara misiño santu baten, ondu arren asko aragizko bekatuetan, jausten dira murmuraziñoan. Ez, ene anaje maiteak, ezta onelan egin bear, zerren bardin izango da gure ondamentia, ondaturten bagara infernuan. Zer geiago doa, ez galtzean gaistakeri onegatik, bestea gaitik galduten bagara?

Baña jakin, zuen onerako, eze, ezin litekean gauza dan legez ondutea arima bat, kendu baga okasiñoa; alan txito erraz da, berau kendurik, ateratea biotzean dan bizio gaisto sustraituena. Ara ze argal mea dan biderioa, bada alanbere iraute andikoa da, austeko pelligruetatik ondo gordetan bada. Alantxe, kastidatea, edo garbitasuna, esaterako, balio andikoa, baña lora argalak, graziaren bitartez ondo gorderik okasiño galdugarrietatik, eukiko dau betiko irautasun miragarri bat.

Lora onen orria izango da, *alde egitea okasiñoa*, urrindu, ta iges egitea laguntza gaisto, ta batzar oker guztietatik; bada Dabid Erregeak diño: *onakaz batzen bazara, ona izango zara; ta deungekaz lagunduten bazara, gaistoa izango zara*. Jazteko bat ifinten danean lora usain onekoen artean, eransten jako usain gozoa; baña nastuten bada gauza atsituena artean, usain kirastua emon daroa. Bazabiltze lagun onakaz, erantsiko jatzue euren ekandu onak; baña txarrak, gaistoakaz laguntzen bazara.

Eta oitura txarrak, onak baño errazago oratuten dira geienetan; zerren gure borondate argal gaisotua, gaxera makurturik dagoan legez, onera baño, pretago doa gaxera. Pestez atsiturik dagoan gaiso bat da asko, gaisotuteko erri guztia; baña milla osasundun ibilli arren gaiso baten inguruan, erantsiko ezteutse osasunik. Jesus gaitik erregututen deusuet, etzaitzela meetasun andiaz onetan ibilli, esanik, au edo beste okasiño, edo adiskidetasuna beartsua, premiñazkoa, edo ontsua dala zuentzat. Zer bada, obeagoa, ta bearragoa ezta zuen salbaziñoa? Ara zer dirauskun Jesusek Ebanjelio santuetan *zure eskoako begiak emoten badetsu okasiño edo biderik bekatuako, atera egizu, ta bota zueganik; obe jatortzu, begi bat galtzea, eze ez gorputz guztia infernuan erretea*. Auxe berau diño, egin daigula eskoako eskuaz, bekatueroango bagaitu.

Zetako bada dira orain, okasiñozale askori, euren aitutasun aragizkoak asmaerazoten deutsezan asmuak, irauteko urten baga bekatu-bidetik? Batek esan oi dau: joan bearra daukat urlia etxera; euki neure etxean arako presonea. Zer diño Jesusek? Ain bearra zein zeure begia ta eskua izan arren bere, larga bear dozu, atera, ebagi, ta urrindu zeuganik. Nori sinistuko deutsegu? Nori obeditu, ta noren esanera egon bear gara? Beste batek urtengo dau esateaz: zer esango dau munduak? Ta eranzun egidazu: zer esango dau Jesu Kristok? Zer zeru guztiak? Bateo santuan larga ez genduan mundua? Iñok serbidu ezin leiz erabatera ugazaba kontrario bi, diño Jesusek.

Gure arimea salbetarren, iruntsiko eztoqu mundu zoroaren *zer esan*, esamesa ero uts bat? Onenbeste ta geiago eroaten eztozuez algara andiaz beste eun gauzeetan? *Zer esango dabe?* Ta eriotzako orduan zer esango dozue? Zer balioko deusue, zor ez jatzuen izenak, Jangoikoaren juizio bildurgarrian ikusten zareanean? Santa Maria Madalena, etzan izango dana, onenebeste puntu, ta meetasunaz begiratu izan baleutso bere onra, ta on-erretxiari. Aurreratuten nas esatera, bera iraindu baga; eze, ez baka-rrik etzala izango santa Maria Madalena, ezpada andra argal errukigarri bat. Eta bada jarraitu deusazue gaistakerian, jarraitu egiozue penitentzian; despreziatu egizue bere antzera munduko zer esanak, irabazteko onra egiazkoak.

Besteren batek esango dau: joango nas urlia etxe edo lekura, baña joango nas kontuan; egongo nas serietasun ta arpegi ilunaz; enas sarri sartuko; ez nas luzero egongo; eztoz bakarrean berba egingo. Asmu zoragarriak! Polboreak bear eztau, ez su andirik, ez denpora luzerik, kalte andiak egiteko. Bada oraindiño polborea baño pretago erexegiten da aragizko amorea. Lagundurik bazabiltz, laster bakartu, ta bekatuan jausi zara. Eztiño Jesusek: gitxi ikusi daizula, urrinetik begiratu daizula; eztiño bere, zarratu edo itxi daizuzala begiak, estu eskuak. Begi itxiak erraz zabaldu-ten dira ifinirik okasiñoan. Gitxi begiratuten danean, gustu geiagoz ikusi gura izan oi da; ta oni darraio, atan gelditutea. Dirausku bai Jesusek, atera daigula begia, ta bota kanpora; beste ainbeste diño besoa gaitik; ta ain bizitasun andiaz au aginduteaz, adierazoten deusku, bota daiguzala txito urrin; ez bakarrik pelligruren bat etorri eztidin, okasiñora barrero biur- tzeko, baita kendu dedin gure gogotik bere gomute guztia.

Eta ara adibide beartsu bat; eta da, borondatearen kontra, edo gura ta gurezko okasiñoak esan oi dirianetatik, ozta idoroko da bat, alan danik. Dakuskuna da, ondasunen bat galduko danean, eragozgarri guztiak ben- zietan dirala; ta etxeko otseñ batek zerbait ostu dabenean, ezeri aitu baga,



ateretan da etxetik kanpora. Niri zer deust, esan oi da, jentea oñoten egon arren? Baldin nire ondasuna gordetan badot, esan daiela, aora jatorken guztia. Bada alan, adigarri da, bere zera dala, kanpokoen bildurrez ateretan ezteanean etxetik arako mutil edo emakume maitea? Bai. Ta zein izango da? adiskidetasun zikiña, maitetasun aragikorra. Gertaldi asko, askotan jazoak, esaneiz, egiau baieztuteko, ezpaliz zuek gogaitute arren.

Auxe baño besterik jazoten ezta, ezerezkeria zatar bategaitik ebagiten danean beingoan arako etxeko sart-urtena, ta urte askotako adiskidetasuna. Zer balio dau, esatea onelakoari, deungero diñoala jentek? Guztien aotan dabilela, ta ezain dirudiala bere aldegiteak? Epetasun soseguzkoaz eranzuten da; laster aztuko dala, ta ezerezkeria bat gaitik guztia biaramoneko ixilian geldituko dala; bere konzienzian arrik, ez kezkarik eztaukela, ta alan jenteen zer esaneen ardurarik ez dabela. Eta ainbeste atzerapena, bekatuzko etxea itxiteko? Bai; zerren maite dan; ta itxitea, neke egiten dan. Ta onexek dira okasiñoko etxea ez largetako, asmu eragozgarriak, ez benetakoak, bai azaleko irudituak, ta begitanduak.

Diñot bada, premiñazko, edo naigura bageko esaten dirian milla okasiñotik, ozta idoroko dala bat, alan danik. Eta alan, nekez jazoko da, benetan bat Jangoikoagana biurtzea, sustraitik atera, ta alde egiten ezpada bekatuzko okasiñoa, begi bat baño bearrago ta maiteago izan arren; ebagi ezeze, guganik urrin bota bear da; ta bestela, esana esanik, diñot osterabere Jesusgaz: obe dala gorputz zati bat galtzea, betiko iraute guztian infernuko su ta gar bizian erretea baño. Zorigatx onen aldean ze beste gatxek bildurtu bear gaitu?

Zarratuko dot goiko guztia gertaldi eder bategaz. Gizon gazte batek gura eban artu bizimodu on zeruzko bat; ta ondo asteko eskatu cutsezan adibide santuak ermutar agure santu bati. Bai, esa eutsan onek, emongo deutsudaz zuzen-bide egiazkoak, ta eskribidu egizuz paper baten, nik esaten deutsudazan erara. Prestau zan gizon gaztea, ta asi zan onela ermutarra. Lenengo konsejua: neure seme maitea, *urrindu zaitexala okasiño deungeetatik*. Eskribidu eban gizon gazteak. Bigarren konsejua, jarraitu eban agure santuak: *urrindu zaitexala okasiño deungeetatik*. Ifini eban. Irugarren konsejua, seme maitea, esa eban ermutarrak: *urrindu zaitexala okasiño deungeetatik*. Aita, esa eban orduan gazteak, konseju ori bein ezeze, birritan bere ya dago eskribidurik, ta zetako diraustazu irugarrenez ifinteko?

Orra emen agure santuaren eranzuna: neure semea, ain balio andikoa da konseju au, eze, berau бага, eztabe ezer balio, nik emon aldaizudazan zuzen-bide guztiak; baña baldin auxe gordetan badozu ardura andiaz, erraz gordeko dozuz ganeko guztiak; ta biderik geiena eukiko

dozu ibillirik, gura dozun zeruzko bizitza egiteko. Onen ondoren berbatxo bat, eta da, eztaukenak biotzik ateretako okasiñoak sustraitik, eztabe la eukiko, ekandu txarrak kenduteko. Emon arren negarrik ugarienak, azalezkoak izango dira negarrampulluak. *O bekatari gaisoa*, diño Santo Tomas Villanovakok, *egiaz negar egiten badozu, kanpora urten egizu*. Esango baleu legez: benetakoak ta biozkoak badira zure negarrik, itxi egizuz bekatuzko bideak, okasiño, ta adiskidetasunak. Ta azkenez diñot: dan legez uts guztia konfesiñoa, alde egiten ezteanean borondatezko okasiño urkoa ta berez bekatutsua; alan sospetxa ta bildurrezkoa izango da konfesiñoa, borondate bagako okasiñoak izan arren, ikusten ezpada emienda ezagun bat.



BIGARREN LOREA

Bigarren lorea izango da, sarritan, ta deboziñoaz konfesatu, ta konmulgetea. Diñot *deboziñoaz*, bada zetako da sarri konfesetea, deboziño bizi egiazkoaz egiten *ezpada*? Egiaz, askotan konfesetea, ta lenagoko bekatu andietara biurtzea, erakusgarri da, uste-izateko, uts guzurrezkoak diriala konfesiñoak. Bada iños ez ondu, ta ez obetuteak, adietan emoten dau, egiazkoa eztala biotz-damua, ta benetakoia eztala propositua; ta eurok бага utsa da konfesiñoa.

Kontu bada zuek, beti zabiltzenok iños ondu бага, beti sarturik, ta zarturik ekandu gaistoetan, dana dala bekatua, nai dala mandamentu onen edo bestearen kontra, beti gora ta bera, bein jausi, beste bein jagi, nosbait jagiten bazara; kontu, diñot, zuek, bekatuzko okasiño galgarrietan buruz sarturik zagozanok; ta ameneko sarriturik sakramentu santuak, debotoen paper polita egin oi dozuenok; baña eztozuez zorrak kitutzen, ezteutsa-zube jabeari biurtuten gauza ostua, ez osotu besteari kendu zeuntzen fama. Zetako ain argiro guzurtu, ta engañetan zara? Ezer balio eztau *biurtuko dot* otz batek, sekula biurtzen *ezpada*. Benetakoak balira proposituak, eurok betetako alegiñak egingo litekez. Laburtuko litekez gastu kostotsuak, gitxitu larregia soñean, janean, jokoan, bisitan, kuartelean, otseñ alperretan. Egiten da au? Baita bearbere; bai askotan jarraituten dira bere oñean, gerorik gero andiagotuten *ezpadira*.

Eta ikusi arren, onela jarraituaz, zorrak pagatu bearrean, geirik geira doazala zor barriak, orregaitik bizi da kezka бага soseguz. Sarri ta ondo sarri enzuten da pulpituetatik san Agustinen sententzia erabagia: *Ezta parketan bekatua, ezpada biurtzen gauza ostua*. Uts guzurti prestueza da, egiten daben penitentsia, aldaiela, biurtzen eztabenak zorra eranzutea. Enzuten da, baña jaramoten ezta. Zer esan oi dozue zuek, besteren batek zeurok iraindurik, biurtzen ezteutsuenean onrea? Dedar egiten dozue, alakoak engañetan dabela konfesorea, deungaro konfesetan dala. Biurtu egizue orain barrukoaz kanpora soñekoa. Zegaitik auxe berau eztozue zeurok gaitik uste izaten? Jangoikoaren legea bat bardiña ezta guztientzat? Nos edo nos irazarri zaitezte, ta zabaldu egizuez begiak ikusteko zeuroen pelligruzko ondamendia.

Bekatuak benial arin txikiak, ez egizuez itxi konfesazaga euren damu andiaz; bada arinak izan arren berez, astun pisutsuak dira Jangoikuaren aurrean, zerren diran bere ontasun maitegarriaren kontra egiñak. Ez izan

ume txikiak legez, zeintzuei euren amak arpegia garbitu, ta arik laster zikindu ta loituten dira barriro. Eztakutsue au askotan zeuroen etxeetan? Eta au jazo dedin, gura dozue, zeuroen konzienzietan? Seintxo espiritua-lak zara.

Ondo konfeesetako, artu, lora onen iru orri diran, iru adi-bideok. *Lenengoa*, esamina, edo konzienziako billakuntzaren ondoan, emon dai-zuela ordu lauren bat, gogoratuten Jesusen ontasun, esker, ta mesede andiak, ta zeuroen esker-bagetasun, ta billautasun prestueza; biztuteko onen gomuteaz bekatuen damu, ta gorroto egiazko bat.

Bigarren. Konfesetara zoazen guztian, uste izatea, bearbada auxe izan-go dala zuen azkenengo konfesiñoa. Bein, edo bein izango da atzerengoa, baña nok segurutuko deusku, zein izango dan? Enda zelan konfesatuko ziñateke, bazengoze eriotzako ordu larri birlurgarrian, kandela erexegiña eskuan, ill-jantzia aburdikoan, ta arimea urten agiñean? Orduan gura zendu-kean legez, konfesatu bear zara, konfesetara zoazen bakotxean.

Iruugarrena. Konfesorearen oñetan zagozenez, uste izan, idoroten zarea la Jesusen oñetan, zein iltzan krutze baten zuek zorionduteko. O ze maitetasun, ze humiltasun, ze biotzmin, ta negarrezko lotsa santuaz esan-go zeuskioezan zeuroen erru, ta argaltasunak Jesusi berari, aurkituko baziñatee Magdalena legez etxunik bere oñetan, edo bere krutze-pean Kalbarioko mendian! Alantxe eldu bear zara zeuroen konfesoretara. O alan egingo bazendue, eta ze erraz, ta ze laster, sarriturik sakramentu santuau, aterako zendukean zeuroen biotzean dirian biziorik sustraituenak!

Eztago infernuaren kontra, sakramentu santuak, sarri, ta ondo artu-tea baño arma izugarriagorik. Guzurraren aita asmu-gillak berak, konju-roen indarraz premiñaturik, alan zala, esan eutsan aldi baten, aita santo Domingoren ordeako erlijioso on bati, beronen eriotzako orduan.

Baña bildur lar artu ez daien arima bildurti, ta biotz garbikoak, adie-razoten deusuegu, eztaizuela itxi, sarri konfesetea, askotan jausi arren bekatu, ta uts txikietan. Eldu zaitezte damu humil bategaz; ta aldaizuen gogo sendoaz propondu, ez biurtzea beste bein onelako uts-egiteetara; ta beti irabaziko dozuez graziazko ondasun ugariak.

Gara bekatarriak, arako ura sartzen jaken barkutxo zar neketuak legez. Elegoke ondo eginik, itxitea onei urez beteten, bada ondatuko lite-kez. Atera egizuez, bada, bertatik, zueroen biotzean sartuten dirian beka-tu benial, edo arinen urak. Orain sarri garbitu arren, bazabiltze ondo loi-turik, zer izango litzateke meatz, ta luzero garbitu ezik? Alan, bada, maiz, ta sarritan garbietan dozuezan legez eskuak, oneek barriro loitutera biur-



tu arren; alan, askozaz errazoi andiagoaz, ta ardura benetakoagoaz, garbitu bear dozuez zuen arimak.

Ez esan, askok esan daroena: zer konfesauko dogu? Bada nor da ain aitua, ta mena, eta egun guztian bekatu txiki askotan jausten eztana? Onexeeek dira arimeko gaisotasunak; eta bada, eskuak min gitxi bat egiten jatzuenean, bereala ifinten dozue osagarri bat, eztozue ardura gitxiagogaz osatu bear zuen arimeko gaxik txikienak. Orrez ostean, sakramentu santu au ez bakarrik da bekatuen parkagarria, baita sendagarria bere, aurrerantzean bekatuan ez jausteko. Eztozue on gitxi irabaziko, ateretan badozue, ez jaustea aurrerantzean bekatuan.

Baña nosik nosera konfesatuko gara? itanduten deustazue. Gura neunke zortzirik, zortzi egunera. Asko eskatuten dot? Aldatuten eztozue alan alkondarea? eta lartzat eukiko da, asteen bein zeuroen arimea garbitetea? Onen alkondarea da konzienzia. Ez egidazue esan, zeregin andiak daukeuzezala, bada dakizue, au dala bear-lanik ardurazkoena. Eztozue idoroten denpora, ta astia jateko, lo-egiteko, alperrik egoteko, eta baita bekatu egiteko bere? Eta bakarrik ezta izango bearren dozuenerako?

Batez-bere gura neunke, etzengiela luzetu konfesiñoa amostik aurre-ra; ta geiago luzetuten badozue, esango dot, ondo gitxitan dozuela zeuroen arimea. Baña onetan, ta esan dodan baño sarriago konfesetako, ez urten konfesoren esanetik; bada eurok dira, Jesusek itxi eutsuezan angeru ikusgarriak, zuek zaindu, ta zuzenduteko; obediturik euroi, obedituko deutzazue Jesusi. Alan dauko adierazorik Jesusek berak.

Orrez ganetik erregututen deusuegu, beneraziñorik andienean euki bear badozue bere Jangoikoaren ministro guztiak, zerutik jatsiriko angeruak bailitzen legez; baña alanbere euren artean danen onik onena autu bear dozue fietako zuen konzienzia. Eztozue alan egiten zeuroen gorputzeko mediku osagilleaz? Zeuroen auzietan letradunaz? Begira bada, onenbeste, ta askozaz ardura geiago merezietan badau arimeak, ta betiraun guztiko zeregiñak!

Eta gura badozue artu gure adibidea, uste dogu, konfesorerik onena izango dala zuentzat, estuago, ta ziurrago idoroten dozuena. Sugeak aldatu gura dabenean azal zarra, ta jantzi barriaz, igaroten da zulo estu bate-tik, ta estura onegan itxiten dau azal zarra. Alantxe geratuten da barriz-taurik. Bildur nas, konfessore zabalen billa dabiltzenak, iraun gura dabela euren oitura, ta ekandu txarretan, ta deungaro konfesetan ete dirian.

Sakramentu santu komuniñoa besteak baño miragarriago da, dan legez iturria bera urez beterik dagoan edontzi baten aldean. Zeruzko sakramentu onetan idoroten da Jesu Kristo, zein dan grazia guztien emo-

ilea, ta iturria. Ez kontentu Jesus, guri eginiko mesedeakaz, emen emoten jaku bera eginik janaria, mantenduteko gure arimak.

Begira bada, ze bildur lotsazkoaz, ze humiltasun, ta amore ere-xe-giñaz eldu bear zarean, bera artutera. Eta ze mesede, ta ondasun ugariak itxadon ezin ziñaikez? Zer ukatu leigu, dan guztia emoten jakunak? Ze garbitasuna erantsiko ez jako, ondo artzen daben arima zorionekoari? San Franzisko Salesek diño, Alpesko mendietan jan, ta janaz erbiak edurra, biurtzen diriala zuriak bera legez; alan Jesus sakramentadua ondo artuten dabenak, janari zeruzko au sarri jateaz, biurtzen dira edurra baño zuriago, ta ederragoak.

Eldu zaitze sarritan, deboziño, humiltasun, ta maitetasun egiazko-az, ta orduan ikusiko dozue, ze maitegarria dan gure Jauna, ta ze gozoa, ta osasuntsua dan bere gorputz, ta odolaren janari miragarria.

Gura dozue oraindo, lora onen orri bi legezko adi-bide eder bat, konfesatu, ta komulgetako espirituaz, ez bakarrik egunean egunean, baita ordu guztietan bere? Ara: bekatoren baten jausten zareanean, uste-izan, elduten zareala Jesusen oñetara; ta humiltasun, ta damuaz, baña izutu baga; eta konfianza osoaz bere ontasunagan, etxuten zareala bere aurrean. Onetan esan egiozue humildanzia maitez oneek, edo onelako berbakuntzak: «Orra, neure Jesus maitea, nik ostera bere egin dot, oi dodana! Ostera bere jausi nas kriatura zantar prestueza legez. Baña aramen, Jesus maitea, non naukazun parkeska, damuturik, ta lotsaturik zeure oñetan. Damu dot, o neure jabe bakarra, damu dot biotz guztirik zu ofendidua; ta zure graziaren bitartez, artzen dot gogo sendo bat aurrerantzean zu ez irainduteko. Nik seme billaua legez egin badot bere, egizu nigaz, o Jesus maitea, aita errukitsua legez. Zer ezpada onelako ar, ta arantza gogor gais-toak emon leikezan nire biotz zorigaistoko onek? Eta zer itxadon lei nire arimeak zure ontasun andiaganik ezpada grazia, ta parkaziñoa? Bai arren Jesus zareana zarealako».

Au egin ta bereala geratu tristura baga epetasun andian; ta Jesusek emon bailitzuen legez penitenziaz, egin nekeren bat, erea danean, zelan dan lurra mun-egitea, zerbait errezetea, bekatu egiñaren kastiguan. Orra modu erraz bat biotz-konfesiñorako, zein egin ziñeike nosnai, ta non-gura, ta batezberre arratseko konzienziako billakuntza, edo esaminea egi-torduan.

Alan egiten badozue, itxadoten dot, onik asko aterako dozuela; ta bein baño geiagotan jagiko zareala Jesusen oñetatik, bekatuak parkaturik; zerren Jesusek emon eutsenean konfessoriai, bekatuak parketako eskubi-



de, ta poderioa, etzan bera baga geratu Jesus. Baña alanbere preminaturik, ta bearturik zagoze esatera konfesorari zeuroen bekatu mortal guztiak.

Komuniño espirituala, edo arimazkoa, da, eukitea gurari erexegin bat, ta gose-egarri bizi bat Jesus sakramentua bularrean errezibietako. Nok eragotziko deusue berari deitutea, zeurok gura dozuenean, edozein lekutik, nai arta-jorran zagozen solotik? Nok galazoko deusue, deitutea biotz guztirik? Alan, bada, gogoratu, sakramentu adoragarri onetan geratuteaz, erakutsi euskun maitetasun oxin bagea, biziteko gure laguntzan, ta sendotuteko gure argaltasun, ta gatz guztiak. Bai, ontzat artuko dau, ta pozik etorriko da gure biotzetara, deituten badeutsagu maitetasun egiazkoaz.

Deitu, bada, ze bere graziak eztauts egingo; eta dei-egin onako berba, edo beste onelakoakaz: «Nos elduko da, Jesus maitea, ni zugana elduteko ordu zori-onekoa? Neure Jesus laztana, zergaitik luzetuten zatxataz? Merezietan ezpazaitudaz bere, zu zara nire zori-on guztia! O neure jaun, ta jabe bakarra, deustazun amore andia gaitik erdu, erdu sagrariotik nire biotzera; bada biderik geiena emon dozul». Etzinian etorri zerutik lurrera, zorionduteko nire arimatxoa? O joan albaneiteke zu errezibietara, eta ze pozik elduko nintekean zugana, Jesus neurea! Erdu laster nigana, ni poztutera, bada argaldurik nauko zuri asko gura izateak.

Abia zaite onelan, ta etorri bailitza legez Jesus zure biotzera, beroen giltza guztiak emon egiozuz berari. Ezarri egizuz bera oñetara zure almen, ta zenzun guztiak; erregutu egiozu, euki zaizala beti bere oñetan; eskatu egiozuz, bearren dozuzan mesedeak, batez-bere kentzea arako kalte gogor geiago egiten deusun griña, ta ekandu gaistoa.

Ez ibilli Jesusegaz pildinka. Eskatu egiozue gauza andiak, zerren Errege andia da. Esaizue: edozein Errege lurreko elizateke aserratuko, lauziriko bat eskatuteko, biralduko bazeunskioe paper, edo memorial bat? Fraide pobrea nas, baña eneunke ontzat eroango; eta ontzat eroango dau Jesus Errege guztien Erregeak?

Baña aita, zer esakatuko deusagu? Esanik daroat, eskatu bear dozuezala gauza andiak; eta izanik txikiak, zantarrak, ta prestuezak lurreko gauzak, edo ez eskatu eurok, edo eskatu bigarren lekuan. Ah! baña ze okerretara egiten dozuen! Onetan dirudizue arako elex-ateetan ifinten dirian eskeko gaixoak, zeintzuek erruki andiaz eskatuten dabe, lauziritxo emon daiuela, baña aztuten dira osasuna eskatutea. Zuek bere lauzurikoak esketan dozuez, ta ez osasuna; ta baldin iños eskatuten badozue osasuna, da gorputzekoa, ta ez arimekoa. Ze zorakeria! Ardura andia astoaren osasunaren, ta jaramon ez bere jabeari. Gure gorputza da gure astoa; ta nor da bere jauna, ezpada arimea? Alan bada.

Zarratuko dot irakurtzau urre gorrizko giltze bategaz; au izango da, konfesiño, ta komuniño guztietatik atera daizuela ondasunen bat, esaterako, irabaztea au, edo beste bertutea; edo ebagitea au edo beste ekandu txarra. Egizue zuen arimakaz, egin oi dabena andrak alkondara zar lexibian ikuziaz. Jarten dira, artzen dabe eskuetan, ta goirik bera jagokaz adi, ikusteko non dagoan urraturik; asten dira ebagiten atal ifin gaiak, ta adobetun zuloak, ez guztiak beingoan, ezpada banaka, ta bearren daben lekutik. Auxe egin bear dozue, zueuroen konzienziakaz, garbitu ezkerro lenago konfesiñoko garbitegi zeruzkoan. Zer bada, miesazko alkondaregaz egiten doguna, eztozu egingo gure arimeko alkondareaz, zein dan gure konzienzia?

Eztozue gitxiago egin bear komuniño santuagaz. Negargarria da arima askogaz jazoten dana. Testamentuko kaxa santua ifini ebenean filisteoak *Dagon* Jainko guzurrezkoaren elexan, jausi zan esku-taiu uts au bere altaretik bera, ta zatitu zan. Ezta errukigarria, guk ainbeste bider artutea Jesus sakramentua, zeinen antzirudia zan a kaxa edo utxea, ta orrez guztiaz gure *Dagonak*, au da, bizio txarrak bere oñean gelditutea? Ain sarri, gu osatutera etorri zeruko mediku osagillea, ta alanbere gure arimak beti gaisorik geratutea? Ah! gorputz-etiku batentzat, milla arima tisiku idoroko dira.

Arima asko mantenduten dira sarritan komuniño santuko janari gozo miragarriaz; komuniño santu bat ondo egiñik, izan bear leuke asko, bekataririk andiena santu egiteko; ta orrez guztiaz ikusten da, etiku dagozanak, jan arren jatekorik oneenak, ezerbere aurraratuten eztaben legez osasunean, alan onelakoak gitxi edo bapere irabazten eztabela, Jangoikozko ogiau jateaz.

Edozein neke artuko leuke etiku gaiso batek, urtetearren bere egokera errukigarritik; inguratuko leukez erriak; joango liteke Londres, ta Paris giño bere; ta poz pozik urtuko leukez onetan bere ondasunak.

Ara bada emen sakramentu santu onetan osagarririk sendoena irabazteko osasuna, ta au neke baga, doarik, ta lauziri kosta baga. Begira zelan; baña nola dan ardurazko lana, goazan astiro zabaldutera urrengo adi-bidetan. Enzun bada.



KOMUNIÑO SANTUKO PRESTAERA

Lenengo prestaera: garbitu egizuez zeuroen arimak konfesiño on, humill, damuzko, ta benetako bategaz; erabagiten dozuela, Jesusen graziaz, gogo sendo bategaz bizitza barri bat artutea, ez erdizka, ezpada osoro.

Bigarren prestaera: Fede bizi bategaz sinistu komuniño santuko sakramentuaren anditasun miragarrian. Sinismen bage pausurik aurreratuko eztozue; bera da argi zuzengillea.

Irugarren prestaera: Biztu Jesusen graziaz batera, Jesus sakramentadu beraganako maitetasun andi erexegin bat. Amore au da ezteguo apaindura edergarria. Eta zelan nei nik ori, diraustazue? Ara: nola ezin euki giñei amore au, Jesusek berak emoten ezpadeusku, berari lenengo eskatu bear deutzazue; eta bada emoten deutsue bere gorputza ta dan guztia, ta onetarako aginduten deutsue, amoreaz presta zaiteela, eskatu egiozue, arren ukatu ezteizuela, berak ainbeste deseatu, ta zuek ainbeste gura dozuen doe estimagarrien au.

Geiago: gogoratu egizue ondo, Jesusek erakusten deutsuen maitetasun muga bagea zeruzko mai santu orretan. Ah! ziñoan san Juan Krisostomok, ama maite batek erakusteko bere amore andia, azten dau bere umetxo laztana bere bularreko ugatzagaz; eta idoroten dira ama asko, diño santuak berak, neke gitxi au artutezarren, emoten dituenak azteko euren seintxoak beste andra iñudeai. Baña o neure biotzeko Jesus! Zuk gugaz egin oi dozu alakorik? O, zati bat ezeze, zarean guztiori emoten zatxakuz, gorputza, odola, arimea, Jangoikotasuna. Eta mesede neurri-baga ori bakarrik egin ete zeuskun txikitan? Ez, ezpada bizitza guztian. Eta oraindiño geiago dana, Ai, izan arren bere gu milla bider esker-baga gaisto okerrak, baldin humildurik, ta damuturik elduten bagara, amorez beterik zatorkuz. Neure Jesus: balitz zu etortea arima garbi ta serafinen antzera amorez erexeginetara, ontzat igaro litekela dirudi; baña Jaun andia, zelan daroazu ontzat ni, ta nilako billau prestuez ta kriptura zantarran biotz, ta bularretara etortea?

Begira, zor baiako amore; ta premiñaturik bazagoze egiteko alegiña berau irabazteko. Amoreaz amore pagetan bada, ta alan egiten badozue, mesederen bat egiten deutsuenagaz, zelakoa izan bear da zuena, komulgetan zarean bakotxean? Errege batek konbidauko bazinduez bere maira; berak bere eskuakaz platera egin; ta geiago dana; berak bere gorputz zati

bategaz prestauko baleu janaria; nor mirarrituko ez liteke? Orra bada au eginik Jesus Erregeen Erregea gaitik. Ze maitetasun andia, bada zor ezteutsazue?

Atera egizuez, bada, zeuroen biotz zitelak, baldin maite badabe, Jesusek gorroto daben gauzarik. Eta baldin, opa ezpadeutzazue Jesusi amore guztia, esatera niñoian san Pablogaz; ta zegaitik esan bearke ezto egiaz? *norbaitek maite ezpadau geure Jesu Kristo Jauna*, altareko sakramentu santuan, diñot orain nik; madarikatua izan bedi. Betor Jangoikoa bera juzgetara, azalduten dau Duamelek, maitetasun au da geien Jangoikoak eskatuten deuskuna, ez bere bearrik dabelako; bai, bera dalako prestamenturik bearrena, sakramentu santu onen frutu ugariak erreziobietako. Orregaitik arako atxinako mana Zeru-janaria, onen irudia, gordeten zan urre-gorritzko utxa baten. Urre-gorria da karidadearen irudintza; berau irabaztarren ifini bear dogu alegin ardurazkoena, Jesusen graziaz batera.

Bai; baña amore sendo egiazko bat; ez lastozko suaren antzekoa, zein ain laster da garra, zein ketan amatau itoa. Zer balio dau negar anpulletxo bi ezartea, ta arik laster lengo zitelkerietara biurtzea? Ez. Biztu bear dogu amore oso eragin-gille bat, mugietan gaituena Jangoikoaren legea gordetara; bekaturik txikienari gorroto andi bat artutera; Jesusen borondatea geurea beeratu ta azpitutera; gurari bizi bategaz berari gustu emon, ta bere bertute amagarriak jarraitutera; benik bein humiltasuna, pazienza, garbitasuna ta guztien ganean karidadea, bertute guztien Erregiña, baña ez aozkoa, ezpada eskuz ta egitezkoa.

Eztiñot, sakramentu santu onek egingo gaituela illezkorak edo iños ilgo ezkareanak, baña zorigatx andi ezaina da, ez beste bein gaisotuteko ardurarik ez artzea; orain santututen doguz geure miñak Jesusen gorputz santua berean ifiniatz, ta arik laster odoltu, ta ezainduten doguz miñok, bein murmuraziño ta esaka gaistoakaz, beste bein berba loiakaz, biaroakaz. Baña nos artean alan egingo dogu? Biurtu gaitetzan lengo firu albiñua artutera.

Laugarren prestaera: Komulgetara joan baño len, badakutsue daukezuela gorroto ta ikusi ezin txikienen bat personaren bategaz, edo joan bertati beragaz baketu, ta adiskidetutera, edo aserraldi andia ezpada, artu asmo sendo bat, lenengo era danean, au egiteko, emonik amore fin baten seña adigarriak. Zerren, doerik artu gura ezpadau Jesusek arerioturik dagoanen eskutik; ta agindurik badauko Ebanjelio santuan; Altarearen oñetan dagoana doeak eskiñiten, baldin gomuten bada, arerioturik dagoala iñogaz, antxe itxirik doea, edo ofrendea len bait len bakeak egitera are-



rioagaz; ze deungerotzat eroango eztau, amore baga eldu gaitezala amorezko sakramentura?

Au adierazo ta irakasteko dispondu eban sakramentu onen geia izan zedilla ogia, ta ardaoa. Ogia egiten da gariagaz, baña oñetarako gari garauak alkar batu bear dira. Eioten da, eralgi, alderatu zaia, garau baten uruna bilduten da bestenagaz, oratu, ta gorputz bat egiten da. Alan alde batera bota bear dira aserre ta gorrotozko zaiak, ta alkartu arimak maite-tasunean, gustetako sakramentu onetako gozotasun, ta ondasunezko iturriak. Bardin ikusiko dozue, egiten dala, mats garau irazietatik ateretan dan ardaoagaz.

Baña berba bat; eta da, ezuala bardin, asmetea batek bere arteko griña edo inklinaziño txar karidadearen kontrakoa, zein karidadean uts egitea. Baldin, gomutaurik Jesuen maitetasun prest gozoa guri parketako, kentzera egiten badau bere griña, mugida edo mobimentu txarra, ta eskatuten badeutso Jaunari, gozotu ta beraatu daiola bere biotza, ta orrez geiago, txera onean ondo portetan bada esatez, ta egitez bere arerioaz; eztau orregaitik uts egiten, berari jatorkan premiñari. Alogera gitxiago zor ezjake marinelai, ekatx ta axearen kontra itxasoan doazanean. Griña, ta naigura deungak ezirik Jaunaren graziaz, eztabe gitxituten meritu ta bearsaria; geiagotu bai. Eta orregaitik itxi euskuzan bateo santuan, kendu al izanik. Dira urrezko merezimentu asko atera geinkezan mina edo meatzeta. Alan balia zirian santuak Jesusen graziaz, ta bardin guk egin giñei.

Boskarren prestaerea: Humiltasun andi bat, baña ez konfianza gitxiago. Dira Jesus gana egaz egiteko ego biak. Egaztirik bizkorrena, baldin ego bakar bat osorik, ta bestea ausirik badauko, ozta jagiko da lurretik; baña egaztirik txikienak bere ego biak osorik ta ondo lumaturik baditu, kanta ederka igoten dau kanpantorrerik altuen ganera. Oraintxe mirarituden nas, ikusirik, ze erraz ta bizkor egaz egiten daben, auxe eskribietan nagoala, emen dabilten euli txiki gogaikarriak. Ha neure Jangoikoa! kriptura guztiakaz irakatsi ta biztuten nozu. Eulitxo pitinok alan egaz egiten badabe, zelan egaz egingo dabe zure arime maiteak humiltasun, ta konfianzako ego biakaz, zure graziaz lumaturik?

Mugitu zaitezen humiltasunera, eskatu ezkerro Jangoiko doe guztien emolleari, biztu egizuez gogarte bi oneek. *Lenengo:* Jangoiko sakramentuaren anditasun adoragarria. *Bigarren:* zuen txikitasun, ezereztasun ta billautasun prestueza. Humiltasun onetara egiteko, egun aurretik emon zaiteze gauza humillak egitera, edo dala, lurra mun egitea, besoak zabalik belauruniko, edo buruz auspaz lurrean etxunik ifintea, kolpeak zeuroen bularrean jotea; edo uste izan, oñak mun egiten zozozela gorrotoren bat

deutsazuen personaren bati; edo bisitau hospitaleko gaisoren bat. Ez geratu bakarrik gogozko humiltasunean. Erraz ifinten gara, gogoz baño ezpada, danik txikienen oñetan; baña atzerapena, eurtada, ta aldats esker-gak asmetan ditu gurezko amore ta askogureak, au egiteko gure bardin bategaz biztuteko konfianza andi egiazko bat Jesusegan, gogoratu egizue, bere ontasun ezin geiagoan andian, ta ez bakarrik geratu zala sakramentu santuan arime garbientzat, baita egiaz beragana biurtuten dirian bekatari-rik andientzat.

Seigarren prestaerea: egun aurretik nekegarri gitxi bat egin. Atxinako bildots pazkoetakoa (oraingo sakramentuaren irudinza), jan oi zan letxuga edo urraza garratz-minakaz nasturik. Prestaurik arimea nekaldi ta penitencia gitxi batzukaz, obeto abiatuten da, gozotasun geiago idoroten dau, ta on geiago egiten deutso zeruko janari miragarri onek. Enago gauz andien eske; baña edolabere auxe egizue: itxi jan baga gauza zalegarriren bat, edo laburtu afaria. Premiñaturik dagozanak gura ta gurez labur egitera, auxe berau borondate pozaz eroanik, izango da Jesusen aurrerako nekegarri, ta prestaerea agradu andikoa. Era onetara asmau egizuez beste penitencia txiki batzuk, bada eginik borondate onagaz, andiak izango dira Jangoikoaren begietan.

Zazpigarren prestamentua: eta da, al baitenez, beinbere joan etzaitezee-la komulgetara, konfesau, ta bertatik. Premiña andiren bat ezpadozue, zagoze asti gitxi baten, gogoratuten, zetara, ta zer errezibietan zoazen; ta orduantxe da ordurik onena, gomutetako Jaunaren anditasunean, ta egiten deutsuen mesede andian. Ez gitxiago biztu bear dozue zeuroen ezereztasuna, ateretako emetik esker onak, humiltasuna, amore erexegiña. Gero eldu arrotasun ta baneria baga; kontu onetan; bada ezain ta dongero dirudi, erakutsirik Jesus ain humill sakramentu onetan, beragandutea goituraz ta andiustez arroturik gu autsa ta lurra baño ezkarean kriptura bekatuaz astunduak. Allega zaiteze altarera astiro, ta moduz, zeuroen Jangoikoa errezibietara. Baña konbeni bajatzuez prestaera oneek, komuniño aurretik; ez tira beartsu-ezagoak emotera noatzuezan adibideak komuniño osterako. Goazan bada.



EGIN BEAR DANA KOMUNIÑO SANTUAREN ONDOAN

Ez eban alperrik esan Jesusek berak beragatik, janaria zala. Nire aragia, ziñoan, da egia guztiaz janaria. Oartuten deusku, alegin guztia egin bear dogula bere graziaz bitartez, ondo egosi edo dijerietako. Janaria osasuntsuenak, ondo egosten ezpada, on gitxi edo bapere egiten ezteutso jaten dabenari. Ain bertute andikoa da sakramentu santu au, eze, bein ondo artutea, izan bear leuke asko, gareanok santu egiteko. Mirari arrigarririk jazoten zirian elix barria zanean. Ete dau orain bertute gitxiago? Ez; ezpada geienetan ez kara lenengo kristiñauaren antzera prestatuten komuniño aurrean, ta komulgatu ezker. Eta asko, janari santu au jatea, ondo egosi edo dijeridu bear da, berotasun zeruzkoaz artu ezker. Modua da au: itxi ta zarratuten dan legez kontxea, zeruko iñontza artu ezker, intz tantakaz perlak bere barruan sortuteko; era onetara arimeak artu ezker iñontz zeruzko au, zarratu bear da bere bakarrean, ta bertan ondo gogotu, nor zarratu daben bere biotzean; ze mesede miragarria egin deusan Jaunak; ta onetarik erne ta biztuko dirian afekto ta gogarte santuakaz, zeintzuk erexegingo ditu Jesus berak, egosten da ederto janari zeruzko au. Orretarako:

Gauza guztien aurrean, aztu egizue, dozuen ekandu deungea askok, iges egitea elexatik komulgau ta bertatik. Zer esango leuke herejeak au alan zuekaz ikusiko balebe? Uste izango leuke, euren ustekoak ta sinisten etzenduela Jesusen egote egiazkoa sakramentu onetan. Egiaz: eztator ondo sinismen au, ta bestetik alako lotsari ezaina. Egingo zenduke alan lurreko Errege bategaz? Kontu egizue, sartu jatzuela zeuroen etxe barruan; itxiko zenduke bakarrik? Ibilliko zinteeke eskas ta urri beragaz? Ta alan balitz, ze mesede itxadon ziñeikee beraganik, izan arren Erregerik prestu esku zabalena? Aramen errazoietatik bat, zegaitik frutu apurririk ateretan eztozuen ainbeste komuniñotik.

Euki daizuen zetan emon komuniño bakotxean, oraintxe emongo deusuedaz *gogarte*, edo *meditaziño* labur batzuk; ez guztiak beingoan batera egiteko, bai zeuroen komuniñoetan zatika ta aldizka eukiteko. Eta artu egizue adibideau gogoan, eta da: ez dozuela bata bestearen jarraian joan bearra; ezpada, ekin egiozue sarriago, ondoen berotuten zaituenari, edo deboziño geiagora zakartzenari. Erleak estabiltz bestebaga lora batik bes-

tera, doaz nai ta geratuten dira, non ezti-gaia ondoen arkituten daben. Izan bedi bada.

Lenengo gogarte, edo *meditaziñoa*. Gogoratu egizue, ze arin, ze prest, ta ze deboziño andiaz joan zirian Jesus jaioparria adoretara Belengo arzaitxo pobreak, angeruak barri on au emon eutsenean. Ze amore, erreberenzia, ta humiltasunaz etxun zirian bere oñetan; mun egingo eutsezan, busti euren begietako negarrakaz, gurari andiaz berari opa ta eskiñiteko euren biotz maiteak. Orain bada: Jesus berbera, Belenen jaijo zana, artu dozue zeuroen bularrean. Biztu bada fedea, ta erago arzai aen antzera, al daizuen gogo guztiaz humiltasun, amoreko egikiaiak.

Baña ezteritxat au asko; oraindiño jatsi bear zara gauza bakarretara; esaterako; maitetu pobrezea, beartasuna, ta bakartasuna. Pobre beartsuak bazara, eroatera pazienziak. Aberatsak bazara, askatu biotza lurreko ondasunetatik, josirik euki baga emeko gauzai; luzeturik eskua, besteen premiñak betetako; gogoan eukirik san Juanek diurautsuen; ezabela balio aozko errukitasunak, eskuak laguntzen ezpadeutse. Bada zer balio dau, diño Santiagok, esatea ao gozo laban bategaz bearturik ta premiñaturik dagoan bati: ea, zoaz, berotu zaite, erremedia zaite, ezerbere emoten ezpadeutsazue? Kontu bestetik, ez iñori ezetan kalterik txikiena egiteaz. Propondu egizue jarraitutea pazienzian, eroanik Jesusen amore gaitek, onetan, edo atan jazoten jatxazuezan nekeak, despazenziak, gaisotasunak, irainak. Egizuez propositu banak ta bakarrak, irabazteko bearrago dozuen bertutea, edo azpitudeko gerrarik andiena egiten deusuen bizio gaistoa.

Sekula geratu etzaitzeze beingoan igaroten dan azalezko deboziñoan. Ez eta gogo guztirokoetan, izateko humillak, pazienzia dunak. Alan erabagitea andizka, izatea humildeak, ez jaku gatx egiten. Nekea ta ondo andia dago, gertaldi bakarretan ta gora bera nekezkoetan humiltasunau euki ta erakustean; ta auxe da balio dabena. Zer balioko deutso presona bati, martirioa, ta purgatorioa bera igarotera opa ta eskiñitea Jesusen amorez, arik laster dollorturik makurtuten bada edozein pasiño txikiaren azpira? Berbatxo batek itxiten badau iraindurik ta soberbiaturik? Neuk daukat milla bider neure errukia; ta negar egin bear neuke, ikusirik, ainbeste promes eder eginik, bapere betetan eztodala. Adibide au euki bear da buruan meditaziño guztietan, ta gogozko oraziñoa egiten ifinten zarean bakotxean. Nik alan egin oi dot; entero beartsua da, ta agaitik gura neunke, josirik geratu zedin zuen biotzetan.

Bigarren gogarte: gomutau, zelan Errege Magoak izarra ikusi, ta argiturik Jangoikoaren graziaz, abia zirian prest ta pozik adoretara Jesus seiñ-



txoa, largetan zituezala euren erriak etxeak ta ondasunak, aztuten zituela bide luzeak ekazan neke gogor guztiak, ta jenteen zer-esanak. Begira, ze humiltasun andiaz opa deutsezan Jesusi euren biotzak, euren koroiak, urrea, mirrea, inzienso, ta doe estimagarriak. O arimak! andiago da zuen zoriona, bada komuniño santuan, ez bakarrik adoretan dozue Jesus Errege Magoak legez, baita zarratuten dozue or zeuroen biotzetan. Zelan maitetasun andiaz estutu ta laztanduten eztozuez bere oñ ederrak arimeko besoakaz, esanik esposeagaz: *idoro dot neure maitea, eutsiko deusat, ta ezteusat itxiko*. Esan egiozue Jakobgaz: etzaitut, *Jauna, largako, bedeinketan enozun artean*; neure bekatuak parketan ezteustazuzen artean; arako bizio agintaria goiartuteko, arako bearrago dodan bertutea irabazteko, sendagarriak emoten ezteustazuzen artean.

Ta ez Erregeak, ez Aberatsak ezpazara bere, eskiñiteko koroiak, urrea, opa egiozuez eurok adierazoten dabena. *Koroiaren* orde, egotzi egizue Jesusen oñetara griña geiago egiten deusuen pasiño txarra, milla bider gorrotauten dozuela biotz guztitik. *Urrearen* orde, opa egiozue amore benetako bat, ez zatika, ezpada oso osorik biotz guztia; alangoz eze, maite badozue Jesusen ganetik beste gauzarik, ez bedi izan Jesusez kanpora; au da, amau egizue maite izan bear dozuena; baña Jesusegan, Jesus gaitik, Jesusentzat. Aberatsak bazara opa limosnaren bat; ezpadozue zetarik, asmau errukizko gauzaren bat lagun urkoaren onerako, bada asmagilla andia da karidadea.

Mirrearen gomutean faltako etxazuez atsekabak, naibageak, nekeak, ta krutzetxoak, Jesusi eskiñiteko; arako gaisotasuna, arako persekuziñoa, arako eregi eutsuen guzurra, galdu dozuen auzia, ondasuna, senarraren gogortadea, emaztearen muker ta oñoteak, ugazabenak.

Inziensoaren lekuan, eskiñi ordu laurengo oraziño gogozkoa egunean. Berau da Jangoikoaren aurrerako inziensorik estimakizunena. Eta nok egiaz esa lei, eguneango oraziño au ezin euki leiela? Ogeta lau ordu ditu egunak; geiegi ertxiko deusku, batxo arimeari emotea? Zeregiñak dagoz? Eta zer, arimeko salbaziñoko lana zeregiña ezta? zein da berau baño ardurazkoagoa? Baldin salbetan bagara, betiko zorionekoak izango gara, ill arren arrak janik, ta hospitale baten. Kondenetan bagara, oraingo zoriontasun ta pozkari uts laburrak zer balioko deuskuez? O! Eta zelan dan egia, Jeremiasek dirauskun legez, galdurik badago mundua, dala aitutasun ta konsideraziñoaren faltaz!

Orrez geiago, opa egizue *Jesusen presenzia*, ermuko mana baño balio andiagokoa dana. Beragan ditu gustu zalegari guztiak; gozotuten ditu neke-bearrak; sendotu gure arimea; argitu gure konzienziako kezka ta

dudak; ta egiten dau izan ditezala merezikizun ta balio andikoak gure egitekorik txikienak. O *Jesusen presenzia* santua! O doe estimagarria! Zelan gurari andiagoaz billatuten etzaitugu? Ibilli zaitezze beti Jesusegan, arraiñak uretan legez. Uretik urteten dabene arraiña, laster ilten da; bildur bada, ill etzaitzezan Jesus azturik bazabiltze. Uste izan zeuroen alboan darabiltzuela krutzeaz astundurik; edo daukazuela zueuroen biotzaren erdian. Gogoratu, zerbait esaten deusuela, ta eranzun egiozue zer edo zer.

Irugarren gogartea: pensatu, ze maitetasun, humiltasun, biotzbera, ta damuagaz, urtuten eban Madaleneak bere biotza, negar andiak emoten zituala bere bekatuakaiti, etxunik humildurik Jesusen oñetan. Gomutau bere egizue, ze gurari erexegiñaz egotziko zan san Pedro Jesusen oñetara, negar egiten bere bekatua, agertu jakanean bizturik. Ea, ez dozue zer joan Jerusalemenera, Jesus idoroteko, eztaukezue zer igo zerura; or ortxe zeuroen biotzean daukazue. Arimak! zelan etxuten etzara amorez, ta zeuroen bekatuen doloz? Negar bada humiltasun, ta esperanza andi bategaz; zatitu an zeuroen taiu guzurrezkoak, zeintzuk dirian zeuroen griña ta bizio txarrak; erabagi egizue Jesusen graziaz, iges egitea onelako ta alako okasiño ta bekatu-bideetatik; artutea au edo beste sendagarria; ateretako sustraitik arako oitura ta ekandu gaistoa; irabaztea bertuteren bat; asteko bitzita barri bat; ta jarraituteko eriotzara artean egite on santuetan.

Bada zer balio deusku kristiñauak izatea fedean, fede bageak bagara ekanduetan? Ori beragaitik izango da gogor garratzagoa gure kondenaiziñoa; bada egiaz desonretan dogu gure Jangoikoa, san Pablok diñon legez, ta ezainduten dogu kristiñautasuna; ta zeinbat andiagoak dirian gure sinismena, gure argiak, guk arturiko esker-mesedeak, ta sendagarri errazak, gu erraz salbetako; ainbat andiago ta estuagoak izango dira kontuak, karguak, ta juizioa; ta emetik etorriko da, ikaragarriagoa izatea gure kondenaiziño galtzaera ta ondamendia, atxakia, ta eskusa bagea gure bekatua.

Betoz, diño san Pablok, etorri bitez deungero bizi dirianen ganera, Jangoikoaren aserrea, atsekaba, larritasun, ta gogortade guztiak. Baña ara, zer diñoan: betoz diño lenengo judeguen ganera, gero barriz jentil fede bagearen ganean. Baña zegaitik lenago Judeguaren ganean? zerren fedez argituago, ta Jangoikoa ganik mesede geiago artu dituan. Eta ara, ezer balio eztau, onelako propositu bakar onak artutea, gero barriz aztu, jaramon ez, ta ez betetea; zerren kunpliten bada, gizon prestu bati emoniko berbea, orrenbeste zor ez jako Jangoikoari? Ta au da bearren doguna.

Laugarren gogartea: gogoratu zelan egoten dan gaiso bat mediku osagillea itxadoten, ta ze luze egiten jakan bere etorrerea. Asmetan dabene bakoitzean oñatz edo zarata bat, uste dau, medikua datorrela. Ze argiro agertu-



ten deutzazan bere gatzak! Ze arduraz betetan dituan bere esanak! Neure Jesus! bago zu lako medikurik? Jesus zeure izen bera da osasuna. Zelan egonik ni ain gaisorik, ain maskar argaldurik, ez dot zure bisita gozoaren gurari andiagorik? Beste medikuak, milla bider, eurak gura ez izan arren, osasunaren lekuan, eriotzea emon oi dabe; zu neure Jesus! zara ain mediku ta osagilla egiazkoa, eze, berba bategaz, ta gitxiagogaz osatuten zenduzan gatzik gatzteenak. Esan begi arako Ebanjelioko lepradunak, zeñi, esateaz bakarrik: *gura dot; garbitu zaitte*, kendu zeuntsan sarna ats guztia.

Esan begi arako odolezko gatzagaz amabi urtean gaisorik egon zan andra errukigarriak; zeure jaztekoaren magaleko erza ukututea zan asko, guztiz osaturik geldituteko. Zure aoko txuak ekien begiak argituten itsuai. Zure gerizea, zure Berbea zan guztia al ebana. Esateaz bakarrik Lazarori, *urten egizu kanpora*, usteldurik sepulturaren illik etzala, emon zeuntsan bizi-tzea, ta sendotasuna. Zer kosta jatzun biztutea Naingo alargunaren seme illa? Ukutu bat egin zeuntsan zeure esku bedeinkatuaz bera erioen ill-oeari, esan zeuntsan gazteari, *zuri dirantsut, jagi zaitte*, ta bestebaga biztu ta bizkortu zan. Azkenez; ez dabe mugarik Jesusen mirariak; bere gura izate bategaz sortu zituanari zerua ta lurra, ezin ezer kosta lekikio, egitea, ta ezereztutea gura daben guztia.

Guk orain gure gatzexetan ainbeste desetan badogu medikuaren bisitea, zelan da, idororik gure arimea guztiz gaisoturik, adiña denporan komuniño santura ez eldutea? Zelan komuniño ondoan agertuten eztzeutsaguz argiro ta humiltasunaz gure gatzak? Zelan artuen eztoguz bereala berak emoniko errejeta osagarriak? Bitarik bat; edo illik dago gure fedea, edo maite eztoguz gure arimak. Ta eztakit, zein bietarik dan deungago. Alan bada arimak! agertuten deutzazuezan legez zeuroen gatzak osagillari, ta artu berak aginduko sendagarriak, eztozue gitxiago egin bear Jesusegaz; bada, zer da, gure arimeko osasuna lain beste, balio dabenik?

Eta zetako da deitutea medikuari, bere errezetak enzun, ta beinbere artuko ezpadira? Jesus maiteak emoten deuskuzan osagarri arimazkoak dira; lenengo gure konfessoreen adibide ta abisu santuak; ta gero, arimetan zabalduen dituan argi, biotz-kisketada, ta dei zeruzkoak, batez bere komuniño santuaren ostean. O arimak! enzun egiozue Jesusi amore ta humiltasunaz; egizue beragaz, egingo zendukena baño obeto mediku bategaz, idororik txito txarrik, bazenkie, emongo leuskizuela egia guztiaz osasuna. Munduko medikuetan, jakintsuak izan arren, ozta fia liteke, baño bai ziur ta duda bago Jesusegan. *Gura dozue osatu?* dirausue arako Ebanjelioko perlatikoari legez. Benetan gura badozue, seguru alkanzauko

dozue. Nekerik bapere, ez lauziritxo bere kostako ez jatzue osasuna. Ta gaisorik zagoze? O errukizun negargarria!

Boskarren gogartea: eta zelan poztuko liteke esposa bat, bere esposoa luzaro kanpoan leku urrinetan egon ezkeron, enzungo baleu, ondasun andiz beterik eldu dala urrengo portura, ta ya ur urrean egoala? Ze poza artuko eleuke? Ze gozotasuna berea gogoraturik ya laster zala? ze maite-tasun garbi, ta amorez laztanduko eleuke aurrean ikusirik? Eta zer esan giñei bere alaba bategaitik antxe bertan aurkituko balitz? Ha! Ondo gogoraturuten badozue, oneek baño askozaz afekto biziagoak erne ta jaioko dira zuen biotzeetan, Jaunaren graziaz batean.

Bada, ze esposo, ze guraso dago, Jesus baxen gozoagorik, laztanagorik, ta aberatsagorik? Alan, ikusiko zara bearturik esatera Jakob legez, Josepe bere seme maitea ikusi ebanean: *pozirik orain ilgo nas, bada enki dot zorion ta ditxa, ikusteko zure arpegia neure arimeko begiakaz*. Ya esan bear ko dozue esposa santeaz: *nire maitea niretzat, ta ni neure maitearentzat*. Ya dedar egingo dozue Simeon santuaz: *orain, Jauna, itxiten dozu bakean zeure serbitzaria; zerren ikusi dabe nire begiak neure salbatzallea*. Ta onen ondoren asmauko dozuez zia amorezkoak, esker on, humiltasun, ta konfianzaz betekoak.

Eta auxe komuniño santuko asti au da erarik onena, ez bakarrik mesedeak eskatuteko, bai ta gogorik sendoenak artuteko, ya Jaunaren ize-nean au edo beste ejerzizio debotoa egiteko, ya oni edo beste bertuteari ekin ta eragoteko, ya alde egiteko arako okasiño dongetik. Eta gauza oneek, esan ezeze, egin bere bear dira. Bada egiaz, eztago gure irabaztea deboziño sentikorrean, ondo eretxi arren; dago bai bearrenez, bertuteetan aurreratutean. Eztia gozoa da, baño ez adiña osasuntsua. Ez egizue bada egin ume txikiak legez, zeintzuei emoten deutesenean euren amak ogi ganean ezta, jan oi dabe ezti gozoa, millisketan dabe ogi gana, ta jan joan danean ezta, ogia botetan deutse txakurrari. Ze erakeria! zeinbat osasuntsuagoa da ogia, ezta baxen? Alan gustuzko zalegarriak irudi arren guri geure egite deboziñozkoak, esaterako komuniñoa, oraziñoa, onen bat euroetarik ateretan ezpadogu gure arimentzat, errazoi az bildur izan bear gara, onak dirianez gure deboziñoak.

Seigarren gogartea: gogoratu, oraintxe errezi bidu dozuen Jesus, dala, zuek aberastutera datorren Errege andi bat. Enda, eskekoak erakusten dituezan legez euren soñeko eten zarrak, euren errukia euki dagien Jaun aberatsak, alan zuek bere erakutsi egiozuez Jesus errukiorrari zeuroen premiñak. Pensau, dala arzai maite ardurazko, ardi galduen billa datorren bat, ez ilteko, bai bere lepo ganean arzai on baten antzera eroateko.



Gogotu, dala zuei ikasbiderik onenak emotera datorren maisu jakintsu bat; abogadu bitarteko bat; bada au ta geiago da zuen Jabe maiteau, zeinengan idoroko dozue pensa alitekean guztia. Eta graziaz batean, zeuroen biotzeetan asmetan dozuezan onelako gogarte santuetan, zagoze astiro komuniño santuaren ostean; gomutaurik, ez dala, berau baño asti ta era oberik, bada berean dozue zeuroen bularretan, ez Jesusen irudina, ezpada Jesus berbera. Zenbat bider enbidiau dozue Marta ta Mariak euki eben zoriona, euren etxe barruan Jesus artuteaz? Simeon santuarena, bere besartean euki ebalako? Eta zer egingo zenuen, onelako era zori onekorik euki izan bazenuen? Egizue orain. Baña adibide bi.

Lenengoa: Norbaitek min dabenean atzean edo edononbere, an, non mina dan, ifinten dau unguentu sendagaia. Arima debotoak ara: komuniño guztiak, len adierazo dodan legez, zuzendu bear dozuez, edo zeuroi kalterik andienak egiten deusuezan bizio agintariari buru gaistoa ebagitera; edo bearren dozuen bertutea irabaztera. Eta alan, komuniño baterik bestera, propondu ezkerro Jaunaren laguntasunaz graziau alkanzetea, bizi zaiteze kontuz bitartean, alan egiteko.

Bigarren adibidea: aurre-bide guztiz andia izango da, zati bitan erdi-bitutea komuniño baterik bestera dagoan bitartea; emonik lenengo erdia emoten esker onak Jaunari, ta gogo onezko afektoakaz, Jesus sakramentua oraindik gure bularrean balego legez, adoretan dogula amore ta erreberenziaz, nosik bein biotz-berba gozoak esaten deutseguzala. Beste denpora erdia urrengo komuniño giñokoa, ondo izango da emotea, eskatuten Jesus berari, bere Ama maitea bitarteko ifinirik, presta daizala gure biotzak bere gorputz beneragarria ondo errezebictako urrengo komuniñoan.

O arimak! esa-lei moduren baten desonretan doguzala zeruzko misterio miragarriok; bada jagi bearrean mai santu onetatik leoi indartsuen antzera, esetsi, goiartu, ta azpitudeko era guztiko bizioak, urteten dogu argal, erbal, otz, maskarrak. Suzko txatarrak bota bear gendukezenez, ikusten gara epelak, zer epelak! edurra baño otzagoak. Zori txarreko miraria! Zeruko su guztia euki geure bularrean, ta ez gu erretea. Zer esango dabe hereje adu gaistoko, sinisten eztabenak gure Jesus adoragarriaren egotea sakramentu onetan? Gogortuko dira euren dotrina guzurtietan, deungaro uste izanik, an balego egiaz Jesu Kristoren gorputza, mirari enzuezak gudan ikusiko litekezala; ezin liteken gauzea dala, izan Jangoikozko janari bat, jan ain sarritan, ta idorotea gu ain argalik; izan zeruzko osagarri ezin geiagoan osasun-emollea, gu barriz beti gaisorik. Eta berba baten, izan Jesus errezebictan doguna, ta ez guk maitetasun

geiago berari eukitea! Au alan izanik, eztozu zerbait parte izango herejeen itsutasun gogorrean?

Baña ez neure Jesus! ez, geurea da errua, geurea zorigatxa, geurea galtzaerea. Eta zergaitik? Obeto prestetan ezkarealako. Kafarnaun dun beste mirari, etzituan Jesusek egin Nazaret bete errian; ta au zetan ete zegoan? bere erriarrak federik sinismenik ez eukelako. Eztozuz, Jesus, nigan mirariak egiten, epela dalako nire sinistea, ta laburra nire prestaerea; ta oraindik epelago nago zu errezebidu ezkerro. O! iguzu, Jauna, grazia, nos edo nos ondu ta obetu gaitzean. Alan izan dedilla Jesus.



IRUGARREN LOREA

Izan bedi irugarren *Lorea* libru santuen irakurtza gitxi bat, eta adi-mentuzko oraziñoa. Ezin bizi liteke jan, ta lo egiten eztaben gorputza. Irakurtza da arimearen janaria, ta bere loa da oraziñoa. Bai; gorputzak artuten daben legez bere deskansua, loa, ta atsegiña igarorik eguneko lan bear nekezkoak; alan arimeak, itxirik alde batera lurreko ardurak, artzen dau bere atsegiña ifinirik oraziñoan Jesusen oñetan; emonik guztia, bere esker mesede muga bageak gogoratuten. Zer gura dozue, bada, beragaz jazo dedin, kentzen badeutsazue bere jatekoa, ta ukatu asti gitxi bat espirituzko egotaldi baterako? Ez esan, astirik ez dozuela onetarako, ta zeregin andiz inguraturik zagozela. Esan: eztozue idoroten ordu asko, gorputzari jaten emoteko, olgetako, ta zuek gura dozuezan gauzetarako? Eta bakarrik arimarentzat ezta izango ordutxo bat? Zein da lenago, ta zeinek balio dau geiago?

Oraindiño gitxiago eskatuten dot. Ah! Guk egingo bagendu, dendariak, ta jostunak egiten dabena! guztirako legoke denporea ta astia. Ara zelan oneek billatuten dituezan atal-zati enparauak, ta geienetan ostuak, ta eurekaz egiten dituez seintxoen buru txapel politikak. Ardura andiaz, bada, gorde egizue zuek bere eraldi utsak, ta orduan eukiko dozue astia, irakurtza ta oraziñoa emoteko.

Joateko erromeria batera, etzara jagiten bestetan baño ordu bi, edo iru goxago? Eta zeruko erromeriarako ordu bi lenago jagiko etzara? Esazue emakume deungak, idoroten eztozue denporarik asko, irakurri, ta eskribietako papertxo ero zoragarriak zeuroen adiskide maiteai? Eta esango dozue, astirik eztaukezuela, Jesusegaz berba egiteko, bere bizitza, ta pasiñoa mirariak irakurteko? Ez ori; esaizue bai, nagiak zareala, ta onetarako gogorik ez dozuela. O zeinbat arima, nekatzalle artean bere dazaudazan, zuek baño asti gitxiagogaz, idoroten dabenak denporea oraziño, ta Jangoikoaren gauzeetarako!

Gura dozue adi-bide batzuk onen ganean? Alan izan bedi bada. Ara: lenengo, egin bear dozuena, irakurten asten zareanean, da, jakitean baño, ondo egitean ardura geiago ifini daizuela. Jakintsuak izatea baxen, santuak egitea, geiago gura izan bear dozue; jakituria baxen lenago billatu bear dozue deboziñoa; onelan guztia idoroko dozue; ta bestela, ez bata, ta ez bestea.

Bigarren, artzen dozuenean esku artean librua, uste izan, Jesusek biralduko karta bat irakurtera zoazela. Berau eskribidu daben gizona, eztala ezpada Jesusen sekretario bat, baño Jesus berak eskribidu dabela. Zeruko angeru bategaz biralduko baleutse Jesu Kristok paper bat, ze gozotasun andiaz irakurriko etzeunkee? Irakurri alan, irakurten dozuena.

Irugarren, ez estutu, asko irakurtarren, ezpada irakurten dozuena, ondo iruntsi, ta egostearren. Obe da ondo egostea, eze ez, asko jatea. Lenengoa da osasuntsua, bigarrena barriz kaltetsua, ta asko ill dituana. Kontu bada neure maiteak, adi-bide onegaz; bada bestela, galdu, ta otzitu zan zuen berotasun guztia. Surik andiena egon arren zeuroen suatean, laster ilgo da, ezarten ezpadeutsazue egurra, ta aurretuten ezpadozue illintiak. Irakurtza da gure arimeko berotasuna biztuten daben egurra; berotuko etzara, irakurten ezpadozue. Batez-bere, Jai-eguna euki bear dozue, korreo eguntzat. Nongoa? Zerukoa. Norena? Jesusena. Aste guztia emoten dozue korreo joan-etorriakaz, Londres giñokoak dozue; eta zerukoak?

Berein aldats ifinten deuskuzue, oraziño eukitera, premiñatu gura zaituguzenean! Asko dira, baño ondo txikiak. Aita, nik eztaukat atarako gogorik, ez bururik. Maiteak, Jesus eztabil buru eske, ezpada borondate, ta biotz humil billa. Eldu zaiteze biotz zuzen garbiaz, eze, ganekoa berak emongo deusue. Beragandu zaiteze, diño profeteak, ta berak argituko zaitue. Bazaudaz andra nekatzalletxo nekor jakinezak, zeñen oraziñoen enbidia beti izangot. Nok irakatsi deutse? Jesusek; zegaz irabazi eben irakaste andiau? Humiltasunaz erago, ekin, ta irauteaz.

Bai, *bere berbakuntza gozo zeruzkoak* ditu Jesusek *arime senpletxoakaz*, beragana humiltasun garbiaz eltzen dirianakaz; *eta onelako txikertxoai agertzen deutsez, Jakintsu arrotuak euren jakituria guztiaz ezagututen ezfituezan zeruzko egiak*. Ekin, bada, ta irauñ beti humildurik, ta etxunik Jangoikoaren aurrean, egin eban legez arako aita san Iganazio Loiolakoari asto serbitzarizat opa, ta eskiñi jakon nekatzalle pobrea legez; eta ikusiko dozue, ze oraziño andira jasoko zaituen Jesusek. Alan da, bada; eta nire aita San Buenabenturak esan eutsan legez fr, Gileri: atsotxo simple ezer eztaikian batek amadu lei Jangoikoa, munduan dan gizon jakintsu letradunik dun beste; bada badauko burua, Jesus ametako, eukiko dau beronen obetande miragarriak ikasteko.

Eztozue au beingo batean irabaziko; baño bai denporaz; ezta gitxi, zeinbat lasterren onetara elduteko poza. Irakurten, eskribietan, kontuak ateretan, josten, goruetan, ta kaltzerdiak egiten etzenduen beingoan ikasi; baño geroenez, eurai iñardun, ta ekiñaz, maisu egiñak zagoze. Ze oker egi-



ten etzenduezan lenengo letra, ta goruetak? Orain barriz laster, ta arin eskribietan dozue; eta albora begira, ta baterik bestera adi egon arren, goruetan, ta kaltzerdia egiten dozue. Sarri egiteak dakar erraztasun andi au.

Ume txikiak lenengoan eztakie berez ibiltzen, baña gero arin ta karra egiten dabe galanto. Txoritxoak bere ezin egaz egin dabe jaioparriak dirianean, gero barriz, erraz dabilte aidean baterik bestera. Alan arima bati, neke-gatx egin arren asieran oraziñoa, atara emonik ta Jaunaren laguntzaz, erraztasun andia irabazten dau. Eztau logretan? alanbere meritu andia aterako dau; aterako dau humiltasuna, pazientzia, ta ezta au merezimendu gitxia. Santu askogaz au alan egin eban Jesusek; ze asko frutu garratz-minau bekatariok jan bear izatea?

Bestetan barriz, nai dala epeltasuna, nai nagitasuna, nai gogoraziño txarrak, askotan asmauko dozuez, ta pazientzia andia bearko dozue, ez gogaituteko; baña zuek epetasun, humiltasun, ta soseguz irauten badozue oraziñoan, beti zerbait irabaziko dozue. Pazientziaz iraunik, bardin zein bazengoze deboziño beroaz agradauko deusazue Jesusi; ta Jesuseri gustu emonik zetako dozuez ganeko gauzak? Kontentu bada Jesus, zer doa, zuek ez egotean? Bada ondo dakizue, nai dala oraziñoan, nai beste edozein gauzatan, eztagoala gure zorientasuna, guk gura doguna egitean, baña bai Jesusen borondatea betetean.

Baña onez-guztiz artu adi-bide au, eta da, irakurten badakizue, artu daizuela meditaziño, edo gogarteak dituan liburutxo bat; jarraitu berean, erleak lorak legez. Ikusten dozue zelan dabilten erle bat egaz lorarik lora; baña eztoa baterik bestera, arik eta ustu artean ango ezti guztia. Eta onetara geratu gogarte bakotxean; eta ez igaro bigarrenera, arik eta ustu artean ango deboziño, ta un gozoa. Darabiltzue baterik bestera gogo? Irakurri beste zati bat; eta onetara bete oraziñoa denporea. Muleta, edo makillaz baño ibilli ezin dana, ezta orregaitik ibilli baga egoten; jarraitu egiozue bada oraziñoa bideari, arturik irakurtza esku-makillatzat.

Bearbada jazoko jatxue seintxo txikerrena, zeintzuek ezin ibilli dira oñez, ezpada amaren eskutik oraturik; baña gero ikasten dabe berez arin oñez ibiltzen. Arako zeure adiskida maitearen billete zoragarriak, amorez itsuturik, irakurten zenduzanean, etzinian ego-taldi ero lotsabagean geratuten? Irakurri egizue amorez Jesusaren finezak; bada onek berez dakarde zaletutea bere amorio maitegarriara.

Baña irakurten ezpadakizue bere, aramen oraziño egiteko modu eder erraz bat. Kontu egizue, begien aurrean dakutsuela Jesus; edo gogotu gura dozuena; izan bedi v, g, zelan Jesemaniko hortuan emo-eban odollezko izardia; izan bedi, errudun gaisto bat legez lotu ebenean soka, ta

kateaz; edo gugatik eroan zituan azote gogor erruki bageak. Esan bada orain; idoro izan baziña an, gogortade onek igaro, ta iruntsi zituanean Jesus maiteak, etzeuskion zerbait esango? ta etzirian erexegingo bere maitetasunean zeuroen biotzak? Ah! mirarituko ziñian, ikusirik guri euskun amoreak ta ez bestek, igaro-eragiten eutsezala ain neke garratz minak!

Eta ze erruki andia biztuko etzan zuen biotzetan, ikusirik, batetik bere erru-bagetasuna, ta bestetik bere nekaldi gogor latzak? Ze lotsa andia artuko etzenduke, ikusirik Jesusen pazientzia, ta ixiltasuna bere penen erdian; ta zeuroen sufrimendu gitxia neke, ta gatxik txikienean? Ze damu, ta erruki andia artuko etzenduke, gogoraturik, ze garratzak izan zirian Jesusentzat gure pozkari, ta atsegin guzurrezkoak? Ze amorio andia zor jakala, uste izango zenduke onenbeste amore gaitik?

Baña ezta au bakarrik. Uste dot, eze, idoro baziña Jerusalem orduan, au ezeze, baita etxungo zineala bere onetara, eurai laztanka; erexegingo zineala bere amorean; bustiko zenduezan begietako negar-ampulluakaz bere oñak; egingo zenduen alegiña bera defendietako; erregutuko zeunzeen borruerui, azotadu ez leiela Jesus ona; eskiñiko sendukeen zeuroen solbardea, beretzat egozan azoteak artzeko; eta au laketu zenduen bere odol balioa; gorde odol tantak perla estimagarriak legez; ta negarturik, ikusteaz ostiko-peturik, batuko zenduen ardura andiaz, laztanka mun-egin, ta iruntsiko zenduen gozotasunez beteriko edari zeruzkoa legez. Ea bada, maiteak, egizue orain oraziñoan, egingo zenduena, idoro izan baziñee Jerusalem, Jesus biotzekoak padezidu ebanean.

Artu bere egizue bitarteko au; euki zeuroen eskuetan Santo Kristo bat, begiratu egiozue goitik bera Jesus krutzean josiari; mun egin erreberentzia andiaz bere llagak; estutu zeuroen bular ta besartean amorezko laztanakaz; ta uste izan, bizirik balego legez, berba egiten deusuela krutzetik, esanik: Semea begira ze amore neurri bagea euki neutsun, ta zuk maite izango enozu? Begira, zenbat kosta jatazan zure bekatuak, ta gurako dozu bekatuari jarraitu? Begira, zenbat humildu nintzan, ze pazientzia andiaz igaro ninduan erru baga gogortaderik mintsuenak; zelan obeditu neban, ta ze maitetasun andia erakutsi neban krutzean josirik ifini ninduenakaz. Arimea, ta au alan izanik, jarraituko eztzeustazu? Esan bada orain, au alan balitz, Jesusek zuei berba egitea, zer egin, ta zer esango zendukee? Ze amore, ta ze damu bizia erexegingo ez liteke zuen biotzetan?

Baña onetan, kalte andiak ekarri ta guztia galdu-erazoten deutse oraziñoa daben askori, daukeen umeen ekandu txar batek. Ara ze bakean, ze moduz dagozan eskola-mutillak euren aurrean dagoan artean maisua;



bada oneganik urrindurik, ta eskolatik urtenik, banatu zan guztia; alkar joten dabe, dedar egiten dabe, eztago eurekaz bakerik, batzuk asten dira tronpan, besteak pelotan, besteak zezenka.

Auxe berberau jazoten da arima askogaz; oraziñotik urten da arik laster, otzitu, ta aztuten dabe guztia; baña eleuke alan izan bear, ezpada atera bear leuke oraziñotik, ondoen deritxen konsideraziñotxo bat, barrirotuteko nosik bein, egiten daben legez lora-tegi baten sartzen danak, zeñek beti ateretan dau loratxo bat, betibere usaiñ egiteko. Bestela, or emen darabilenak zabaldurik euren gogoa, nekez beraganduko dira; ta oraziñoko denpora guztia emon bearko dabe bildu ezinik euren almen, ta zenzun deslaituak, dabiltezen legez guraso asko, batu ezinik jatorduan erri guztitik zabaldurik dabiltezen euren ume deungaro aziak.

Eta oraingño gura badozue konsideraziño errazago bi, ibilteko beti Jesusen aurrean, ta gitxiago neketuteko burua; aramen. Gogoratu leku guztietan darraitzula Jesusen, krutze santea lepoan dabela; ta betibere gugananz biuriturik, amorezko kexa bategaz dirautsuzala berba oneek: Zer da au bekataria; krutze astuna lepoan dodala zugaitik, noa zure alboan; ta ori baño geiago lagundu, ta jaramongo ezteustazu? Erantzun egiozu: O Jesus maitea, zuri lagundu, ta zure oñai mun-egitea baño, besterik desetan eztau nire arimeak.

Edo uste-izan, dakutzula Jesus, seintxo baten antzera, krutzetxo bat solbardan arturik, pintetan daben legez, lirio, ta eguzki guztiak baño sotilagoa; ta onetan dirautsula: Orra bekataria, non, neure amaren sabelean sortu nintzanak ona, ibilli nintzan krutze onegaz zugaitik; eta zuk maitezango enozu? O Jesus! Nos erexegingo dozu zure amorezko sua nire biotz otzitan; zerren gura eztot ezpada amorioaz erre, ta iltea zugaitik? Zu zabilte neketurik krutze astunaz nigaitik, zer egiñei, ezpada zuri pozik jarraitzea neure neke, izardi, ta penetan, bada zuk astun-gogorraoak eroan zenduzan nigaitik?

Auxe egiten badozue sarritan, ikusiko dozue, zelan Jesusen egiten zaituezan prest, gai, ta aurreratuak oraziñorako, ta bekaturik urrinduteko. Alan prestago, ta zoliago egongo zara gauz on guztietarako; bestela, geratuko zara epeldurik, ta itsalturik, biztaten eztan kandela erexegin bat legez, zeinek, lenengoan argi bizi argitsua emon arren, gero, erdi illik geratuen da, biztuten ezpadabe barriro.

Ezin bada adierazo lei, denpora, ta paper asko emon arren, ze ondazun zorionekoak dakazan, beti gogoan Jesus erabilteak, ta onetan gogarte labur batzuk, ta biotz-dei santuak egiteak; bada dira, zerugiñoko eltzen dirian deiak. Onen bitartez irabaziko dau arima batek, egotea beti adi-

mentuzko oraziñoan, bere lan, ta bear guztietan; ta baldin ordu erdiko astia bere itxiten ezpadeutez bakarrean egoteko bere ardurazko zeregiñak; kitutuko dau onelan, galdu baga orregatik bere bearra, ta denporea.

Ikusi izan izango dozuez andrea pobre batzuk dabilzela janzirik makina bat atal-zatiz adobaurik dagozan soñekoakaz. Ezagutu bere ezin lei, zein zan lenengo telea. Zati bat da gorria, beste bat zuria, bata baltza, ta besteak urdiñak ta kolore nastukoak. Baña alanbere eztakutsuez, ze berorik, ta ze eskutadurik dabiltezen otzetik? Onelan bada zuek bere egun artean, ta zeuroen era askotako zeregiñetan, jaso betibere Jangoikoagana zuen biotzak, aterarik biotz-berba ta afekto maitegarriak, laburrak bai, baña erexegiñak. Eta arraintxoak jasoten dituezan legez euren buruak ureen artean, alan zuek bere goratu zeuroen arimak Jesus gana, era askotako afekto labur, baña bero exetuakaz, ya amorezkoak, ya humiltasunezkoak. Alan bete ziñeie, zeuroen zeregiñ premiñazkoak eragozten deusuenan noisbait, oi dozuen oraziñoa; ta onelan aterako dozue, zeuroen lan-bear neke, ta zeregiñak izatea oraziño betiko jarraitu bat legez. Eta sinistu egidazue, eze, gona atal askoz adobauak berotu, ta estalduten daben legez dezentiaz presonea, alan zuen arimea otzituko ezta karidadean; ta gomutaurik, begira jagokala Jangoikoa, gauza guztietan ibilliko da garbiri.

Egizue bada, neure kristiñau maiteak, egiten dabena etxe askotako otseñak, ta serbitzariak, zeintzuk gose dirialako, edo asti gitxi ugazabak emoten deutseelako, oñez dabilzela jaten dabe bazkaria; ta onelan batzuk eta besteak egiten dabe berea; edo egizue oi dabena denderuak, zeintzuk feria denporan erabatera egiten dabe guztia, saldu, ibilli, berba egin, bear, jan, ta diruak batu. Alantxe zuek bere iñardun ta ekin bearrari, ta oraziñoari; oraziñoari, ta lanari.

Adierazoteko oraziñoak dakartzan on andiak, bear litekez eskribidu libru asko, ta andiak. Baña atarako iru gauzen bearra daukagu, eta dira, denporea, dirua Librugillearentzat, ta jakituria esperienziak; ta onegatik biralduten zaitueguz ama santa Teresak bere bizitzearen ganean atera eban librura. Ni kontentu nas, egia bakar bat zuei esateaz, au da, lozorroak artuko zaituela Jangoikoaren serbizioan, azturik munduko gauzak, atsegin ta egotaldi bat egiten ezpadozue Jesusen oñeetan; gogoraturik edo eriotzea, edo juizio, edo Jesusen pasiño santua. Eta alan, baldin aurreratu gura badozue arimeko gauzetan, ez galdu oraziñoko egokerea. Uste dozue nire esatea dala au? Ez; urte asko da, irakatsi euskula Espiritu Santuaren esposeak esan ebanean: *Ni lo natx, baña iraxarririk dago nire biotzu.* Oraziño-lo santuari darraio zur zoli egotea bertuterako.



Bestela jazoko jatzue, oi dabena, bear daben loa artu baga, bear egiten ifinten danari. Ifinten bada irakurten, itxiten jakoz begiak. Asten bada josten, jausten jako burua almo adatxoen ganean, oeko aburdiko ganean legez. Zergaitik alan? Loaren faltea daukelako. Bai, milla burujauste emongo dozue Jesusen serbizioan; nagi epel alperrak urtengo dozue, ta laprast egingo dozue bere lege santuaren bidean, artuten ezpadozue bear dan atsegiña oraziñoan. Gura dozue bada egon irazarririk? Ardura guztiak azturik, gelditu nosik bein, ta egotaldi bat egizue oraziñoan loan; ta onelan Jangoikoaren bitartez, egongo zara irazarriak bere lan santuetan.

Zarratuko dot irakurtzau irudintza eder bategaz. Uste dot, oraziñoa, batez bere gogozkoa, dala bizitza espiritualaren arimea legez. Eta alan emon egidazue gizonik sendo, bizkorrena, ta ikusiko dozue, zelan alderaturik arimea, geratuten dan idulki bat legez illik; ta gai ezta pausu bakar bat emoteko. Hai! bildur izan bear da, ozta pausu bat emongo dabela Jaunaren serbizioan, oraziñotik alderaturik dagoan arima batek. Geiago: aldegiñik arimea gorputzetik, izan arren au len eder politena, geratuten da guztiz ezaina ta ikaragarria. Ha! Zenbat bider au ikusi oi da, oraziñotik aldegiñik dabilten arimakaz?

Oraindiño geiago: begira ze laster ustel-kirastuten dan, arima baga gelditu dan, gorputzik sendo indartsuena. Berpetatik asten da emoten usain txarra; betetan da ar atsituz. Eta zer, beste onenbeste jazo eliteke, oraziño santua alde batera largetan daben arimeagaz? Itxirik oraziñoa, ezta asko izango, itxitea, len eukan moduzkotasun, ta berba-egikune ona; ta orra emen; non gitxituten jakan lenago emoten eban usain gozo santua. Ta gauza barria izango da, arik ara eldutea arimau, ardura bagea izatera bere zenzunetan, ta laprast egitera bekatu txiki arinetan? Ta bekatu txikerren ondoan, ze bildurkizuna ezta, bekatu mortalen batek guztia ondatu ez daian? Berein onelako gertaldi errukizunak daukeguz begien aurrean.

Ai Jauna! Arimai dakarkezan zorientasunak oraziñoak, balekarkez gorputzai; au da: oraziñoagaz arindu, bizkortu, edertu, ta osatuko balira gure gorputzak, gareanok izango gintekez oraziñogillak. Zer egingo ez geunke ez inos atso-aguratuteagaitik? Zer emongo eleukee emakume batzuk, balitz edononbere, euren arpegiak edertu, ta betiko edertasunean iraunerazoko lituan gauza edergillaren bategaitik? Non da bada orain gure fedea, gure sinismena? Maite badogu osasuna, ta gorputz galdukor onen edertasuna; zergaitik egiten eztogu irabaztarren, betiko iraungo daben gure arimeko edertasuna? Eta santuak mantendu ezin baziran bertutean,

ez goi-beratu euren arerioak oraziño baga; zelan egin al izango dogu bekatariok?

Zer balio dau esateak, argalak gara? gru geurok kondenetan gara; ta guere eranzute onegaz arpegian emongo deusku Jangoikoak, Ebanjelioko serbitzari alperrari legez; esanik: *gizon gaistoa zeure aotik atera dozuñan berba-kaz juzgetan zaitut*. Badazaugu gure argaltasuna, sendotu, eskudatu, gorde bear giñatekez, emonik oraziñora, sakramentuak sarri ta ondo artuteaz. Osasun gitxikoa dan argala kontuz dabil, alde egiteko gatx egin leioen gauzetatik, ta artuten ditu on egiten deuten sendagarriak, garratz-minak, ta kostu andikoak izan arren. Dituana esku artean osdagarri bigun, erraz, ta onak, baldin ilten bada, artuezarren, egotzi begio errua bere buruari.



LAUGARREN LOREA

Opa izan deutsuedan laugarren *Loreak*, izan bear dau, ardura guztizko bat ifintea, ez jausteko bestebein bekatu txikietan, dala, guzur txikietan, edo murmuraziñotan, desobediñozietan, inpazienziatan. Onexek dira, arako Espiritu Santuak esaten zituen, *arimeko mastui guztia banatu, ta galduten eben azearitxoak*. Zorionekoa azi, ta nagusitu baño len, ilten ditueña arerio txikiok; erraz da beeratu, goiartu, ta iltea edozein bizio txar bere asieran; baño bein andi eginik, ainbat gatxago. Zuetarik zantarrenak apurtuko ditu amabi otsa-kume jaio-parriak; baño nok zuetarik ilgo dau bat bakarrik, otso nagusia egiten danean?

Txatar batetik biztu zan su exetu andi bat, bearbada txua egozteaz amatauko zan; baño garrak indar andia arturik, gitxi dira erriko auzo guztiak bera ilteko. Jakinuk zagoze, maiteak, eze, asmetan dabenean deabru asmutsuak, arimaren batek erabagi dabela Jesusi jarraitutea, ezteutsala esetsiten gauza andietan. Baki ezteutsala onek ondo urtengo; eta zer egiten dau? Asten da gauza txikietatik, v, g, bekatu arineetatik, esaterako, okasiñotxo bat, berbaldi gitxi bat, adiskidetasun guztiz txarra eztan bat, eldute bat arako etxera, txantxa bat, ta beste onelakoak; eurokaz idigiten dau atea, ta bidea, lapurrak egin oi daben legez, zeintzuk lapurtxo bat biraltzen dabe, eurak baño aurrerago etxean sarturik, ta atea idigirik, nagusiak gero ostutera, ta iltera sartzeko. Kontu bada onetan kristiñau maiteak. Bestela, erreski biziko zara milla urtean, baño kentzen ezpadozuez bekatu benialak, edo arin-txikiak, alper alperrik neketuko zara, ta eztozue atz bat aurreratuko zeruko bidean.

Etikuak bizi dira, ta batzuetan erregaletan dira, baño beti dagoz argal. Zetan ete dago au? Da, euren humore txarrak eragozten deutselako. Alan bekatu txikien humore deungak galarazoten dabe bertutearen aurre-bidea. Ifini egizue hortu baten letxuga landaren arlo danik onena, baño inñuriz bete; ikusiko dozue ze gitxi azten dirian, satsa ta ura ezarri arren. Ara zelan, zantar txikiak izan arren inñurriak, ze kalte andia egiten daben.

Oraindiño geiago miraritu bear zara, ikusi nebanagaz aldi baten gure kolejoan. Gomute dot, ikusi izana igarturik, beste denpora baten bere orri ta lora ederrakaz poztuten ginduzan arbola bat; itandu neban, zelan igartu zan au, ta erakutsi eusten inñurri pilo andi bat ebillela goirik bera, esaten eustela: oneek onexek txiki pildinok, aita, galtzen dabe arbolea.

Jangoiko santua! dedar egiten dot gogoratuten jatan bakotxean gertaldi au; arerio ain pitin ezetakoak maskartuten badituez aretxik sendoenak, zelan azi litekez bertute argal meak, esetsiten badeutsee bekatu benialak? Emen dakusku, ze errazoi andia eukan esposo santuak, aginduteko bere esposeri, ill egizala len esan nituen azearitxo txikerrak.

Baña nik orain bakarrik berba egiten dot, geuk egin oi doguzan bekatu txiki ekanduzkoa kaitik; ez argaltasun ta borondate oso baga jazoten jakuzenakaitik; ezpada guk gura dogula, gure borondatez, ondo begiratuaz, ta ezer ezpalitz legez, esanik guzur txantxetako bat, murmuraziño gitxi bat, ta epetasun andiaz esaten dala; *ea, onegaitik inñor eztoa infernura*. Ai neure Jesus! dirudi, onelakoak bakarrik daukela kondenetako bildurra, ez zu sentimentuz betetearena, ez zu iraindutearena. Zer egingo ete leuke, bekatu mortalak ezpalekar betiko erretea infernuan? Sartu begie eskua bularrean, ta eranzun begie argiro.

Baña goazan aurrera; bakarrik bada orain berba egiten dot arako oitura txarreko ekanduzko bekatu beniala kaitik, ta dirudienean, eztaukala batek emendetako borondaterik. Bai, ze beste bekatu txiki argaltasunez, edo bearbada premiñaturik legez egin oi dituezanak egiazko arima onak bere; oneekaitik diñot: baldin jausi ta laster damututen bajake, ta artzen badabe gogoa, aurrerantzean ez jausteko, ezta zer bildur asko izan onelako arimakaitik.

Hortulauak euren hortuan ateretan dituezan bedar txarrakaz egiten dabe sats ona. Alan egiazko arima debotak ateretan dabe onik asko euren falta txikienetatik, edo dala negarrez ustelduaz, edo damu erexegiñaz erreteaz. Balio dabe, diñot, dala humilduteko, dala Jaunaren serbizioan ardu-razkoagoak aurrantzean izateko, eurak euretan ez fietako, itxaromen geiago Jesusegan ifinteko, ta biztuteko gugan erakusten daben maitetasuna, ikusirik ain errukitasun bigunaz sufrietan gaituzala.

Azkenez, esango dot Espiritu Santuaz: Unguentuaren usaiñ ona galtzen dabela, unguentuan bertan ilten dirian euliak. Orain esango dot neure aita maite san Franzisko Salesgaz: kalte gitxi egiten daben legez balsamuan, eldu bat egin ta bertatik iges egiten daben euliak, alan kalte gitxi egiten dau ariman, jausi ta bereala gorrotauten danean bekatu beniala; baño jausi balsamuan, ta bertan ill ta usteldu dan euliak galduten deusnan legez usaiñ ona; era onetara ekanduzko bekatu beniala galarazoten dabe deboziñoa. Arrak ta aranzak soloan itoten dabe frtua, baño gordegillak dira ifinten badira esian. Zenbat arimetara sartuko liteke soberbia amurratua, uts txikiak adierazoko ezpaleutse euren ezereztasun argala, ta emongo ezpaleutse humilduteko bidea? Ezaguera onek zarratuten deutso



atea arerioari, sartu eztidin. Laprastute txiker bategaz, alde egiten dau batek menturaz jauste andi bat. Dakus bide txarra, ta kontuz dabil. Alan.

Baña arinak izan arren, gatx gitxitzat eukiko dozuez bekatu benialak? O! ta ze bestela gogoratuten dozuen, zeuroen adiskide mesedetu batek egiten deusueanean esker-bagetasun txikien bat! Etzara orduan gogaitu, sumindu, ta aserratuten, esker gaisto andiak beilitzen legez?

Sinistu egidazue, oraziño, ejerzizio, ta deboziño guztiak baño, obe dala, bekatu txikietan ez jausteko, ardura alegiñezkoa ifintea. Eztozue eukiko zorakeritzat, asko errezetea, barau luzeak egitea, ta au guztiaz, ardura baga bekatu benialetan jaustea? Zer esango zenduke dama bategaitik, bitxiz, loraz, ta apaingura ederrez galantuko balitz, baño jazteko zar eten atsitu baten ganean? Berein barre egingo zenduke; erotzat eukiko zenduke; ta esango zeuskioke: urlia, jazteko loi bitxitu guztiori baxen, obe zenduke soñeko leun garbi bat.

Onetan artu bear dozue, Maria santisima amarik maite, ta irakaslerik onenak irakasten deusueana. Ara zer diñoan beronegaitik Dabid santuak: *Egoan Erregiña Erregearen eskoatara urre-gorritzko jaztekoaz, zein zegoan bitxiz ederturik;* begira zelan dagoan; lenengo jazten dau zeruko Erregiñak urregorritzko soñekoa; gero barriz ifinten ditu bere ganean apaingura politak. Auxe da egin bear dozuena zuek bere; janzi zaiteze karidadezko soñeko zuriagaz, alde egizuez bekatu txikieneak; ta onen ondoan datoz galantotz oraziño ta deboziñoak.

Baña ez uste izan, diñodala orregaitik, ikaratu bear zarea, jausten zarea uts egite arinetan; au litzateke, aztutea, argalak, ta geldo pres-tuezak zarea. Nor zeñatu, ta miraritu da iños, ikustea gaitik, lurrean jausten ume txiki bat, edo austen bideriozko ontzi argal me bat?

Gogoratu bear dozue, seintxo txikiak zarea oraindiño bertutean. Etzara ikaratu bear, eztozue gogaitu bear, jausten zarea gatx biziozkoen baten; ezta au osagarria, ezpada humildutea, damututea, Jesus gana konfianza osoaz eldutea, ta aurrerantzean ardura andiangoaz bizitea.

Onexek dira atera bear dozuezan frutuak zeuroen falta txikietatik, ta orduan jazoko da, san Pablok diñoana: *Jangoikoa maite dabena, guztia onean biurtuten jakela.* Bai, falta txiki onek, berez deungak izan arren, dira arimeen onerako; bada dakardez humiltasuna, ta len esan dodazan probetxuak. Erleak lupetz loien balia dira, euren eztiabia gozoak egiteko. O ze maisu egille miragarria dan gure Jesus! bada gure gatxetatik bere ateretan dituz onak.

BOSTKARREN LOREA

Boskarren lorea izan bedi, eldu zaitezeela lasterren konfesiño santuko garbi-tegira; jausten bazara argaltasunez bekatu ilkor, eriotzko, edo mortalean. Egizue oi dabena basauntzak, zeñek ikusten danean eriotzturik, ta zaoriturik, bertati arin egiten dau iturriko urera, anditu eztidin gei-ago zaoria. Egizue oi dabena muskerrak, zein edendu dabenean sugaek bere izpiak, bereala karra-egiten dau kardoaren latztasunaz odol edendua ateretera.

Egizue, oi dozuena, gaisorik etxuten zarea. Esaizue: ezteutsazue bertatik deituten medikuari? Bai, ze bestela, diñoazue, indar, ta su andia artuko leukela zuen gatxak. Eta zer besterik, uste dozue, jazoko litekela zuen arimetan? Eztakutsue au ondo sarri askotan? Erraz da, llaga, edo zaori bat egi-parria danean osatutea, baño gero nekez, belu, ta gatx; beste onenbeste jazo oi da arimeko gatxetan.

Zer bada orain? Orren ardura andikoak izanik gorputzeko gatxetan, bakarrik izango zara nagi nasaiak arimearentzat? Gorputza sendatue arren, pagetan dozue mediku osagillea, ta iruntsiten dozue min andiak, ta edari garratzak; eta barriz, eukirik askoz galdu gaisoagorik arime, doarik osagillak, ta osagarri bigunak, orren gogorrak izango zara beragaz? Sinismen apurrik badozue? Bazauzue, idoroten zarea Jangoikoaren are-rio eginik? Betiko galdu, ta ondatuteko zorian zagozela?

Bakizue, zer dan, kondeneza betiraun guztiko? Gogoratu dozue, zer dan, Jesusen laguntzatik erbesteturik egotea; betiko infernutarra, deabruen auzo, ta arerio gogor onen serbitzari, ta men-pekoa izatea? Bururatu dozue, zer dan, erretan egotea infernuko karobi sutuan Jangoikoa Jangoikoa dan artean; pxiidu, ta kiskaldutea gorputz, ta arima ango txingar gori, su, ta garrean, zeinen aldean eztauke zer ikusi munduko karobi exetuenak, ez Babiloniako laba gori famatuak, ez metal gorizko zezenak, ez mundua danik asmau dirian nekaldi arrigarrienak? Arima maiteak Jesusengan, gizon ta emakume delikaduak sentikorak, ta su-txatar bat eskura jausirik, negar-anpulluak begietara ateretan deusuezanak; arimak, zelan lo-egiten dozue?

Zelan lo, jan, edan, ibilli, ta ain pozik bizi zara, egonik bekatu mortalean? Egongo ziñateke eskegirik torre altu baterik firu-albiñu mee erbal batetik? Zeuroen bizitzea baño ze ari meagorik, izan arren zuek gazte sendo indartsuenak? Eztakutsue egunean egunean zeuroen begiakaz?



Aztu daiguzan atxinako jazoerak. Zelan ezta kartzuez gogora, arako zeuroen lagunak, arako adiskidak, zentzuekaz, ezta denpora asko, berba egiten zenduela, ta zuekaz paseetan urtetan ebela? Esan orain: zer eginguzan eueekaz, ta non dira orain? Etzirian ill, indartsuak izan arren? Begira bada orain, nogiño elduten dan zuen itsutasuna, bada bildur etzara onenbesten aurrean, ta egonik eskegirik firu argal mee baterik, jausteko, ez torre altu batik, ezpada mundutik infernura. Eta alan zagoze? O! Irazartu zaitezee.

Ondo galanto berba egin eban Karlos boskarrenak itandu eutsenean bere kapitai, ea nor zan munduko gizonik azartuena? Eta entzunik guztien erantzuerak, ixildu zituan dirianak, esanik, ez egoala munduan, bekatu mortalean egonik, bildur-ikara baga bizi zan gizona baño azartuagorik. Nos artean lo egingo dozue? Baldin egia bildurgarri oneek entzunik, irazarten ezpazara, esango dot, eztala ori loa, ezpada eriotzea.

Jakin, bada, eze, katea bateko gartzza, edo elestunak dagozan legez ain alkarturik, non bati tiraturik, onek besteak beraganduten dituan; era onetara, bekatuak alkartu, ta bilduten dira; batak besteari deituten deutso, ta bekatu bati darraio beste batek. Jangoikoaren arerio zagozan artean, aurkitzen zara bere grazia oituar baga; ta graziazko egokeran zengozeela, jausi baziñan bekatuan; zer gertako jatzue grazia baga egonik?

Zuen ondandien bildur izango nas beti, argalak legez jausirik bekatuan, zenbat lasterren jagiten ezpazara; aurrerantzean ardura andiango bat ifinten ezpadozue, ez biurtzeko bekatua; ta ezaguturik zuen ezereztasun prestueza, eskatuten ezpadeutsazue Jesus onari, gaur-geiango bekatua ez biurtzeko grazia, eskua, sendotasuna, ta bitartetasuna.

URRE-GORRIZKO ARI-ALBIÑUA

Lora-sorta onetako lora guztiak estuten dituana

Da au eguneango lan bat guztiz erraza, baña txito baliotsua. Goxean bada irazartu, ta bertati, esker onak emon Jesusi, ordugiño gorde zaituelako. Jazten zarean artean, esan *Abe Maria* batzuk zeuroen ama gozo laztanari. Jagi ta bereala, adoradu belauniko iru bider trinidad, edo irutasun txito santua, ta esan *Aita gurea*. Egin lastertxo fede, esperanza, ta karidadezko egikaiak. Opa, ta eskiñi egun atako gogo, berba, ta egite guztiak Jesus, ta bere Ama Maria Birjiñaren honran, ta eskaturik beronen bitartetasuna, esan iru *Abe Maria*.

Ifini gogo sendo bat Jesus, ta Ama Birjiñaren izenean, ez jausteko, geien galtzen zaituela uste dozuen, uts onetan, edo bestean; edo azpituteko arako bizio agintaria v, g, aragizkoa, aserrakuntza, lar jan-edatea. Edo ezpabere eskiñi, au edo beste zenzuna gordetea, esaterako, begiak, miña, edo irabaztea au, edo beste bertutea, esaterako, humiltasuna, obediencia, baketasuna, eskaturik egun-artean sarriro Jesuseri, emon daizuela grazia, alan irabazi, ta alan egiteko.

Esagarri eztan gauzea da, adierazotea, ze ondasun ugariak dakazan egikera onek, urrinduteko bizio txarrak, ta irabazteko bertuteak. *Lora-pilla* txiki bat dan legez au, balitz *Lora-sorta* nagusi bat, erakutsiko neuskizue luzeroago, egikai onek, Jesusen graziaz batean, dakazan mirari neurribageak, ebagiteko sustraiak bizio gaisotenari, ta irabazteko bertuteak; ikusi, ta ezagutuko dozue, egia badirautset, ala ez.

Onelan banan banaka irabaziko dozuez bertuteak; ta erbestetuko dozuez zeuroen bizio, ekandu, ta oitura txar zorigaistokoak. Ez beingo baten esetsi guztiai erabatera, (diñot txikiak dirianean, ta luzerea emoten dabenean) ezpada banaka, ta bakotxa berez, gaur bat, biar beste bat; bestela, erbi bien jarraian doianari, batak, eta besteak iges egiten deuten legez; alan jazoten jako, bizio, edo pasiño gaisto biri batera esetsiten deutesenari; eta oraindiño gatxago da au; bada esan deusuet, diriala azeariak, ta erraz ezta oneek kojietea.

Baña orrez guztiaz, artu arren goxean gogoa, bertute oni, edo besteari jarraituteko; edo bizioren bat goiartu, edo ebagiteko; badakutsue, besteren batek jasoten dabela burua egun-artean, ez eikezue galdu oka-



siño au, edo irabazteko bertutea, edo ebagiteko burua, jagi gura daben bizioari; zerren, gogo au artu ezarren goxean, etzan onei ez jaramoteko, ezpada batagan ardurea ifinirik, bestean zur egoteko.

Onetarako ifini egiozue zeuroen buruai penitentzia, edo neke txikien bat uts-egiteren baten jausten zarean bakotxean; bada zartea da sendatzailerik onena zoro batentzat. Edolabere lurra mun.egitea, *Aita gure* bat *Abe Maria* bategaz besoak krutzeturik errezetea, uts-egite bakotxa gaitik.

Eguneango lan, ta zeregin oneen zati galant bi dira: *lenengoa*, egitea Jesusen boroiondatea gauza guztietan, nai dala bere eskutik jatorkuzan krutze arinetan, nai dala egun atako gertaldietan jatorkuzan jazoera nekezkoetan. Uste izan, guztiak biralduten deuskuzala Jesus maiteak gure onerako; nai datozala artez bere eskutik, nai zearretara bere aginduz beste batzuen eskutik. Bai, neure maiteak Jesusgan. Guztiz erruki andia artzen dot, gogoraturik, erraztasun andiaz santutuko litekezela asko, eroango balituez pazienzia, bizitza onek dakartzan neke-pen, garratz-min, naibaga, ta atsekaba andiak.

Nekatzalle, edo ofiziodun beartsu batek, ze neke-bear latz-garratzak eztitu igaro bear izaten, mantenduteko bere etxea? Ze izardi labanak, ze eraldi, ta eguraldi txarrak, ze alegin ardurazkoak? zenbat bider gosea, egarria, eguzki beroa, otzak, ta euriak? ze nekeak igaroten eztituez gurasoak semeakaz, ta semeak gurasoakaz? Auzaok auzokoakaz, ta nor naik bere lan ta igaro-pidean? Bada nor dago krutze baga erbeste negarrezko onetan? Bai; ta batzuetan aberatsak, jaun agintariak, ta aide-nagusiak daroek krutzerik nekezkoenak.

Ea bada Jesusen arima maiteak; dana dala, nai dala gaisotasuna, nai beste edozein atsekaba, iruntsi, igaro, artu, ta maitetu pozik Jesus gaitik. Alan eginik, ondasun bi aterako dozuez zuen onerako: bata, irabaziko dozue zeru asko, ta kitu-ordetuko dozuez purgatorioko zorrak; bestea, erraztu, gitxitu, ta arinduko dituzuez, gura ta gurez igaro bear dozuezan neke-bearrak, zeintzuen garratzasuna gozotuko dau Jesussek bere graziaz. Bada, edari garratz, ta azukereaz egiten dan legez gozo-garratz zalegarri bat, alan, zuen neke, ta Jangoikoaren graziaz urtengo dau gozotasunez beteko edari batek.

Zelan eroango dozue obeto egur karga bat, edo arrastaka oñetatik, ala besartean edo lepoan jasorik? Lepoan obeto. Eta bada gura ta gurez eroan bear dozue zeuroeen sorta edo kargea, edo lepoan pozik, edo oñetan gogaiturik, ezta bada obe lepoan jasorik eroatea?

Maitetasun gozoaz eroan daizuezan, bada, zeuroen neketxoak, orra emen gogarte labur batzuk, gogoratu bear dozuezanak sarri egunean.

Lenengoa: gomutautea Jesus krutzean josirik, ta aranzazko koroi gogor bategaz koroiturik guri asko-gurea gaitik. Zelan biztu bear ez gaituz gomute errukizun onek? Ze bestek indartu zituan santuak, gu legez argal sentikorak zirianak?

Bigarrena: emon ta itxi euskuen ejenplu ta ikasbidea santuak eurak, ya martirak, ya konfesoreak, ya birjiña argalak, zeintzuk izanik gu baño erru bageagoak, igaro eben geiago.

Iruigarrena: gogoratu, igaroten dozuena baño geiago zor jakala zuen bakatuai. Askotan merezi izan badogu infernua, zeren kexetan gara?

Lauigarrena: eroanik pazienzia, orain dozuezan nekeak, ez bakarrik aurreratu, edo obeto, pagetan dozuez lenagotik, purgatorian igaro bear dituzuezan penak; bai ta, egiten dozue koroi eder bat, zeruan itxadoten dozuena. Nkerik txikiena da, koroi au apainduko daben, perla balio andiko bat. Beargille bati aztu eragiten badeutsaz bere neke izardiak, itxadoten daben bear-sari edo alogerak, zelan gozotasunez betatan ezgara san Pablogaz, gogaturik oraingo neke-pen arinak ekarriko deuskuela beti iraungo daben pozkari gozoa?

Esango dozue: neke egiten dala, alako gogarte edo konsideraziñoak betibere egitea. Baña neketzat dozue, ain zorioneko gozotasunak dakartzana? Zer diñozue? Izan bedi bada alan; baña da egazti batek asmetan daben neke legez, zeñek lurrean dabillenean, bere lepo ganean darabiltz bere egotxoak. Ara ze arina dan pisua; baña begira, zelan daukan gero bere egoen bearra, pozik egaz egiteko aidean. Da bidezko baten nekearen antzekoa, zeñek igaro bear dituanean bide luze, nekezko, ta bakarrak, prestetan da bere bide-zorroagaz; pisua daroa, baña zer jazoko lekikio, zerbait aldean ezpaleroa, ezpada mendiren baten ill, ta abere ta egaztien janaritzat bera antxe geratutea?

O ze engañaurik dagoan mundua, neketzat daukezenean, garratzasun guztia kendu, ta nekeak eurak gozotuten dituan bitarteko ederrak! Zergaitik santuak ez eben asmetan gozotasun, ta pozkaririk, ezpa Jesu Kristo gaitik padezietan? Zirian gu baño izate obeago, ta indartsuagoren batekoak? Ez askoxe. Zelan beti zituezan josirik euren biotzetan egia oneek, pozik eroaten zituezan nekaldirik garratzenak. Zer gaitik guri gogor ta aldats gora egiten jakuz nekeak? Abereen antzera bizi garealako asko, zenzun бага, ta ezauguera бага.

Eguneango zeregiñen *bigarren* zatia da, oera joan baño len, egitea konzienziako billakuntza, edo esaminea gau bakotxean; bada lauziri giño-ko kontu ziur estua artzen badeutsazue gau guztietan zeuroen otseñai, zergaitik artuko ezteutsazue zeuroen arimai, zelan emon daben eguna, ta



zetan emon dituezan Jesusen esker-mesedeak? Konfesa zaitzeze Jesusegaz gau guztietan; egizue akto kontriziñozko, edo biotz-damuzko egikai bat; zerran oera joan arren osasunaz, nok segurutu deutse, elduko zareala bizirik egunsentira?

Eta kontu, egin bear dozuezan propositu, ta penitenziakaz; izan bedi gitxienez estaziño bat besoak zabalik, edo gitxiago, edo geiago; eta goxean zilizio, edo laztasunen bat; ze nbai dabenak, baki erabilten sedearan azpian bere; ta gitxiagoren bearra ez dabe arako eder ederrik janzten dirian emakume ero, arrotu askok.

Ementxe dator galanto, egitea komuniño espirituala. Eguneko esamina laburra egin ezker, konfesau zorean legez espirituz Jesusegaz akto kontriziñoako damuzko baten bitartez; eginik penitenziaren bat, Jesusek krutzetik ifini baleutsuen legez, asiko zara barrerotutera Jesus sakramentadua gomutea. Ta *lenengo* gogotu egizue: zelan egi guztiaz geratu zan altareko sakramentuan, gure laguntzan bizitearren, guri euskun maitetasun oxin bagea erakustarren, gu ondasun ugariz zoriondutarren ta gu geure estura premiñazkoetan beregana eldu gintezen.

Bigarren bururatu: bere gozotasun guztiak dituan legez, gure artean egoteaz; gurari andiaz dagoala, bere anditasun zabal miragarria alkartu ta batuteko gure arimakaz, deseozko komuniñoaren bitartez; ez gure bearrik dabelako ain Jaun andiak, bai bakarrik, gu betetako mesede ta bendiziño; bada dan legez neurri, marra, ta mugarik ez daben ontasuna, bere konsuelua dago, zorionez betetan gu, argal esker bageak izan arren.

Orain: zenzundunak bagara, gomutaurik ainbeste ontasun, ta jator-kuzan ondasun andiak, eranzunik bere amoreari amoreaz, ta desecoai deseoz, zelan egon geintek ez erexegin bage gure biotzak, ta maitetasun amagarrienaz berari eskatu bage, arren etorri dedilla, gu ikustera, ta gure arimakaz alkartutera? Alantxe bada, biotz-dei arin, baña biziagaz erregutu egiozue, etorri dedilla zeuroen bularretara. Erdu, Jauna, esan egiozue, ta ez arren atzeratu ure etortea. Bazaut nire ezerberezetasun prestueza, baña zelan aurreratuko enas, zelan itxadongo eztot zure ontasun miragarriaren aurrean? Zerutik etorri ziñian legez, ez onen, ezpada bekatarien billa, etzinian batzuen, ta besten konsuelurako gelditu sakramentu santu adoragarri orretan? Zu bazara nire arimearen bizitzea, zelan biziko nas zu bage?

Ea; sosega zaitzeze; batu egizuez o arimak, zeuroen zenzun ta almenak; josi egizuez sakramentuan bertan, ta etorriko jatzuez gogo on, gurari, ta biotz-berba asko onetarako. Beinik bein, ez ibilli berba ederren billa, kontu bai, biotz bizikoak izan ditezen. Gero gitxi baten uste izango

dozue, ya daukazuela zeuroen biotzean Jesus sakramentadua, ta erexegin bere amorean, ta laztandurik mosuka bere oñak, Madaleneak egin eban legez ikusi ebanean bizturik, zagoze an asti labor baten, esaten ta egiten milla afekto, ta propositu on, Jaunak berak adierazoten deutsuen erara.

Presta zaitzeze gero oera joateko, eranziten zareala dezenia askogaz. Akorda zaizeze orretarako, zeuroen ondoan dagoala beti angeru eder bat. Esan *Abe Maria* batzuk, edo beste erregutire batzuk Ama Birjiñari, jazte orduan legez; ta bizturik gero emongo deutsuedazan konsideraziñoetatik bat, arturik ur-bedeinkatua deboziñoaz ta bekatu txikienen damuaz, ta egotzirik fede biziaz ur-beinkatua oean, ta gelan, oeratu zaitzeze, eskiñirik biotza Jesusi. Berba bat: Jesus gaitik erregututen deutsuet, eztaizuela iños artu ur-bedeinkatua ganora bage. Da errukigarria, zanik ain bertute andikoa, ez gudan fruturik atertea, artutearren epeltasun zenzun bageaz.

Ona bada orain, len oartu deutsuedazan konsideraziño biak. Gogotu *lenengo*, loa dala eriotzearen irudintza bat; oea, sepulturako ill-oearena; ta gerta litekela, irazartutea beste munduan, ta oetik sepulturara jasotea. Zebati au alan jazo jake, etxun izan arren onak, ta osasuntsuak? Zetako da, esatea, olango gogoraziño tristeak tristura itsalak dakarkezala biotzai? Kontrara bai; gogarte oneekaz etzaten dirianak, bereala asmetan dabe zeruko argia, Jaunaren laguntza, ta konsueluz betetan dira. O arimak! ikusi ta begiratu egizue egia diñodanez. Ez enzuterik emon asmugilla ero askori, gozotzat garratza, ta garratz-mintzat gozoa daukenai.

Baña aror *bigarren* konsideraziñoa lengo baño gozo zalegarriagoa; eta da, oera etxuterdian, uste izan, angeru batek ifini deusuela oea, kalbarioko mendi santuan Jesu Kristoren krutzearen ondoan, edo gogoratu, antxe zatzazen toki bertan dagoala krutzean josirik gure Jesus maitea. Pensau, krutzetik berba egiten deusuela, esanik gozotasun andiaz: *deskansuzko lo gozoa artu egizu semea, bada nik irazarririk jagon ta zainduko zaitut*. Gomutaurik zagozela arbola santuaren gerizpean, kantetako esposea legez, ta Jesusek berak gordetan zaituela, zelan gozotasunez beteko etzara? Zeren bildurra euki ziñeie? Gogoratu bere egizue: loraturik dagozan arboletatik udebarrian, jausten dirian legez lorak lurrera, alan krutze santa arbola loratsutik, ta frutu bedeinkatu Jesus ganik jausten diriala loratxo gorri gozoak, bere odol balio andikoaren tantak, diñot, ya zuen bekoki ganera, ya zuen begietara, ezpanetara, guztia santutzeko. Eta arimeak, erletxo ardurazkoaren antzera, batuten dituala aek loratxoak, ta daroazala biotzera eztiabia gozoak egiteko; au da, era askotako afekto amorezkoak.



Esan egidazue, ze gozotasun ezti-darioak asmauko eztitu arima on batek gogarte zeruzko onekaz?

Neure Jangoikoa! ezin eldu nas ni au adierazotera, zerren, ay enel argal errukigarria nasan; ta onen ganean bakarrik berba egin lei, probau dituanak zure ontasunaren gozaldiak. Bakarrik bihurturik mundutarreetara errukituko nas euren itsutasunaren, ikusirik, euren asmo eroa kaitik gal-tzen dituezala ainbeste zorion. Baña zuek arima debotak, alabatu Jesus, ainbeste argiz bete zaituelako. Eta eurekaz baliaturik, jarraitu egizuez meditaziño santuok.

Loak artu baño len, gura badozue, barbarik ez txitik egin baga, esan kanta-soñu amorezkoak Jesusi; deseatu, lo zagozen artean bere, bera amean egotea. Ez uste izan, onek loa galtzen dabela, bai emoten dau ondo bake gozoa; ta onelan arturik loa, premiñazkoa dalako, biziko bagara, ta jaunaren serbiziara emoteko, lo-denporako atsegiñak berak balio leigu merezimenduzat. Bada san Pablok badirausku, jatean, ta edatean irabazten dogula zerurako, zergaitik loan ez? Edolabere asko irabazi giñei, lota-ria baño len ditugun konsideraziño santuetan.

Berba bat: onez guztiaz, bajatortzue lo txarren bat, gura eztozuela, ez bildurru, txar gaistoena izan arren; bada eztago bekatu-rik, ezteanean ezaguera ta borondaterik; kentzera egizue, irazartu ta laster; ta mun-egin gogoz ta asmoz Jesusen llagaren bat. Esazue: *Biñi bedi Jesus*, ta ez gei-ago gomutau, ez jaramon. Goxean barriz, ta oerik jagitean, ekin ta erago lena-go esanik daroa danari. Ta onenbestegaz goazan azken emotera lorasorta santu oneri erakuste labur bategaz.

ERAKUSTE LABUR BAT

Orra, zelan ifinten ezteutsuguezan emen gogortadeak, azoteak, latz-tasunak, ez barauak; emo-lei eurok baño osagarri errazagorik? Artzen ezpadozue, adigarri da, gura eztozuela osasuna. Bada esan: zer esango zenduke gaiso bategaitik, eukirik bere eskuan osagarri bigun osasuntsu bat, ta doarik, bera artu baño, ill bere gurago baleu? Esango zenduke, maite-ebala osasuna, ta ondo egiten ebala?

Ha! zuei, ta niri joaku onetan, ez gitxiago, ezpada gure arimea, ta iza-tea, edo zorionekoak, edo adu-gaistokoak. Eta zenbat joaku onetan? Ezin esa-lei. Eta nos artean? Beti iraute guztirako. Eta, maiteak, artu gura ezto-zuez ain osagarri errazak? Bada alan, gura eztozue osasuna; bildur nas, egunen baten negar egingo dozuela.

Bestela, maiteak, jakin, eze, misiño, konfesiño jeneral edo guztiro-koa, ta ejerzizio santuen ostean, (irurok doaz onetan batera), jakin bat, diñot, eze artzen ezpadozue zuzen-bide bakar barri batzuk, obetuteko bizitzea; eta kontentetan bazara bakarrik, Jangoikoa obeto serbietako pro-positu jeneral, edo guztirokoakaz, sinistu egidazue, zimendu bako etxeak legez, laster emongo dozuela lurrean. Egizue zuen konzienziakaz, oi-dozuena zeuroen soñekoakaz; non egotzten deutzazue atal-zati adoba-geia? Urraturik dagoan zatian, ta ez edozein lekutan. Eta jausteko dago-an etxe bati estribo eutsigarria? An, non jaustera doian. Alan da.

Era onetara, ikusiko dozue, zelan errenak ifinten daben polibi andi-ago bat, baña iños ifinten eztabe oñ luzean, ezpada orpo laburrago-an. Begira nondik erren-egiten daben zeuroen arimeak, ta erantsi egiozue antxe takoi, ta ardurea; zerren bestela, izango zara etxe zimendu bageak, ondo laster banatuten dirianak legez. Izango zara, arako itxasoan itxas-orratza, ta norte segura baga dabiltzenak legez; edo bideak uts eginik or-emen neketuten dirian bidezkoak legez; zer egiten dabe oneek? neketu alperrik; ta zer gei-ago? ezer ez gei-ago; edo san Pablok esaten eban legez: *quasi aerem verberans*: axeari kolpeka esetsi, ta daragoiona legez, zein galan-to neketuten da, baña neka baño gei-ago ateretan eztau.

Artu egizuez, bada, adi-bide txikiok, ta ondo gordetan badozue, seguru-bere, orain bakarrik lorak dirianak, elduko dira denporaz frtutu elduak izatera. Diñot *denporaz* ta ez beingoan, zerren au da gure zori-gatxa, kanaka gura izatea azi santutasunean, ez balitzan legez au gauzarik gatxena, erraza bada bere, gogo sendo, ta Jangoikoaren graziaz bat-



batean. Baña esazue: ezta zorakeri andi bat? Gorputza azi dedin, itxodoten eztozue? Beste frutuak artuteko, itxadoten eztozue? Orain zarean erdia, ozta azi ziñian amabi urtean. Esku bete ginda itxadoten dozue urte batean arbola bati. Zortzi klabeledina artzeko, urte guztian zagoze, ura ezarzen bere sustraia.

Itxadon egizue, bada, santutasun, ta bertutezko frutua, zein dan fruturik egiazkoena; eta eztozue gitxi egingo, irabazten badozue ilte orduko; onetarako, ta ez alperrik emoteko, luzetuten dau Jesusek zuen bizitzea. Eztakizue, zeinbat onek iraungo daben; orra bada, ze ardua andiaz bizi bear zarean, zerren lana da ardurazkoa, ta luzea, eta eztakizue laburra danez denporea. Alan bada, ezkara ibilli bear umeak legez pensetan, azten bagara, edo ezpagara, ezpada pazienziar diardu ta erago beti lan santu oni. Eta kontuz bizi, zergaitik ze, esetsiko deuskue tentaziño andiak, ta deabrua beti ibilliko da zur.

Ezkeunke gura, uste-izan daizuen, askok legez, bertutea dagoala, ez asmetan gerra, ta tentamenduak. Alaba maiteak, diño San Franzisko Salesek, gauza bi bear dira onetarako. Bakizue zeintzuk? Iltea; ta zerura joatea; bada bizi garean artean, bearturik gagoz peleetara. Gerra utsa da gizonaren bizitzea; ill baño ordu laurentxo bat lenago bere, egingo ez jaku mesede au. Gara angeruak? Baña zer? Milla bider enzun ezteuskuzue, guk alegiña gure aldetik egiñik, ez indarka, ez larritasunaz, ezpada biotz humil bigun bategaz Jesus, ta Maria gana egaz lasterka eginik ta joanik, eurak estalpetu, ta eskudatuko gaituela?

Ea bada, ez izu-bildurtu; arerioa txakur estu bat da; ausika egin lei, guk gura ez izan arren; tentau gaikez; baña eldu, ta usegin, ez; bada bakarririk bere borondatez beraganduten danari usegin leio. Ez, ez, maiteak, infernu guztia amurratu arren zuen kontra; ta tentaziño gogaikarriak sarritan biraldur arren. Maiteak, deitu fede biziaz Jesusi, emonik dauko berbea, entzungo gaituzala; esanik dauko, prest egongo dala, guri lagunduteko; gugaz egongo dala estura guztian, non arerioaren asmu, ta gerra guztia, izango da gure bitoria, ta onerako.

Sendotu, ta bitzu, bada zeuroen biotz jausiok; ea, Jesus, Mariar egonik, zeren bildur zara? Zetarako larrituten zara? Jangoikoa badago gure aldetik, nok azpitu, ta goiartuko gaitu? Jangoikoa izanik gure argia, bidea, ta osasuna, noren bildurra euki giñei?

Bai, guztirako prest, ta gaiak izango gara Jesusegaz, ta Jesusegan; geratu zaitez beragaz, ta bere ama lastan gozoagaz; ta erregutu egizue orain ta beti, eskatuten dabena kaitik zuekaitik Jesusen onetan.

PROPOSITU EGIAZKOAK ONDO BIZITEKO ADI-BIDEA IRAKURLEARI

Irakurle maitea: Aurrengo lora-sortaren ostean ifinten dot zure eskuetan liburutxo au, ta berean: 1. Propositu egiazko batzuk ondu daizuen zure bizitzea; 2. Bitartekoak mantenduteko igartu, ta ezaindu бага lora oneek; 3. Bertuterik onenak, ta bearrenak; 4. ta azkenean lollo, bedar gaisotzoko sorta bat surtan erretako.

Artu egizu, bada, maitetasunaz txuri au; eta ez aitu ainbeste bere gitxitasunari, ezpada zure onerako opa, ta eskiñiten deusudan borondate onari. Bear-bada esango dozu, liburu onik askok lenago bere urten dabeela; alan da; baña egunean egunean badagoz libruak ateretan jente alperrentzat; ezta ondo etorriko, ateretea kristiñau on bertutera emoten dirianentzat?

Zuk dakutsu, ta guztiak dakusde, zenbat erako jateko zalegarri asmetan dirian gaurko egunez, betetako, gogaiturik garabiltzezan gurari zorigaisto oneek; zegaitik bada nosik bein asmauko eztozu janari santu zalegarrien bat gozotuteko gure arimea?

Eta esaten badeustazu, zegaitik beti ateretan dodazan liburu txikiak, ta ez nagusiagoak? eranzungo deusut, errazoi asko gaitik, batzuk zuen aldetik, ta beste batzuk niretik. Nire aldetik dagozanetarik ona emen lenengoa, nire jakituriaren laburtasuna, zein ezta aurreratuten enpeñu andietara; baña enas orregaitik atzeratu bear egiteko alegiña, apainduteko Jangoikoaren tenplu biziak. Ekartzuz beste bein gogora, Ebanjelioko alargun pobreak eskiñi zituan txuriak; ta arako atxinako legeko jente humillak, ez eukirik urre, ta aberastasunik, apainduteko Testamentu Utxa santua, eskiñiten eben borondate oso, ta biotz maiteaz auntzen ulle, ta narruak. *Exod. 35. n. 23.* Bigarren errazoia, da, nire betiko zeregiñak, ta ibilteak baterik bestera misiño, ta ejerzizio santuetako laneetan, ta asti gitxi eukiteak, astiro, ta luzero eskribietako.

Zure aldetik idoroten dodazan errazoiak dira onexek: uste dot, iru erako pobre beartsuz beterik dagoala mundu au; eta dira, deboziñorik eztaukeenak; bolsarik ez dabenak; ta denporaren premiñadunak. Lenengoak deboziño ta espiriturik eukite ezarren, ikaratuten dira dakusean liburu andi bat; ta guztia irakurte ezarren, eztabe ezerbere irakurten.



Bigarrenak, eztaukee zegaz erosi libru andia, ta alan ezin irakurri leie. Eta denpora, ta astirik ez dabeenak, zelan emon leiez ordu luzeak libru andiak irakurten? Orra bada, daukadazan errazoiak, ez ateretako libru andiak, ezpada txikertxoak; eta onetan egin daroat bekatari gaisoaz, oi dabeena medikuak euren gaisoakaz, ta amak señtxo txikiak kaz. Egia da, sarri emoten jakeela saldea gaisoai, ta ugatza ume bularrekoai; baña bako-txean gitxi. Onetan euroi jarraituten deutset nik bere, ez askotan emotean, ase, ta lar bete ezтитеzen, batera asko emonaz.

Berba bakar baten deusut guztia esanik; zuk gorde egizu gitxi au Jesusen graziaz, ze, onegan itxadoten dot, asko aurreratu, ta dendotuko zareala Jangoikoaren begien aurrean; ta eskatuten deusut, berari erregutu daiozula nigaitik, bada gurari andiaz gura-dot zure arimearen aurre-bidea.

Agur.

SARTAURRE LABUR BAT

Aldi askotan adierazo dot, ejerzizio santuak, edo misiñoak dirauen denporeak dirudiela ude-barri eder gozo bati. Ze lora ederrezko proposituak, ta gogo santuak egiten dirian orduan! Baña o erruki negargarria! bada arik laster otzitu zirian gogo on guztiak, aztu proposituak, ta eze-reztu guztia, jazoten oi dan legez lei, edo izotz andi batek igartu, zimeldu ta ezainduten dituanean lorak. Eta zeinbat bider biurtzen ezтира asko, orduan euken egotaldia baño gaistoagora?

Gauza askotarik dator au; baña izentauko dodaz bi agirienak; lenen-goa da, egiten ezterialako bakotxa berez propositu bakarrak; ta aidean ezarten dirian tiroak legez, ilten eztitubezalako pasiño gaisto, ta bizio txar-rak ta kaltetsuak. Biagarrena da, egin arren propositu banaak, eskribietan ezpadira, aztuten dirialako; ta eskribietan badira, irakurten ezterialako; eta alan guztia galtzen da. Onegaitik bada Jesusen graziaz, noatzu emotera urrengo *propositu* santuak.

PROPOSITUAK

Lelengo propositua

Alde egin ardura andiaz okasiño bekatutsu guztietatik; eta batezbera, ta a: begira bakotzak, nondik asmetan dan argalago. Auxe da lenengo propositua, ta beste guztien burua; bera gorde baga, ezer balio eztabe ganeko proposituak; eta alan, gura dabenak zerua, alde-egin begiz bekatuzko okasiño, ta galdu-bideak.

Bigarren propositua

Urrindu lagun gaisto, ta batzar oker guztietatik; bestela, galdua nas betiko. Eransgarriak badira gorputzeko gatzak, geiago dira arimekoak.

Irugarren propositua

Gorde neure zenzun, edo gorputzeko sentiduak; Ai! bada bestela zelan gordeko dot biotza? Santuak ezin eben.

Laugarren propositua

Erbestetu alperkeria, zerren bera da bizio ama, sustraia, ta iturria. Euki lei gizon batek lotsaria ezainagorik, zein, ez izatea ezpada jan, edan, lo, ta alperrik egoteko? Gauza onen batera emoten ezpada, zer egingo dau? era guztizko gaistakeriak. Eztiñot bakarrik, soloan bear egin daizula; bada ezta au zuk egin ziñakean bear bakarra; munduak dirudi gorputza; onek ditu bere zati bakotx, ta zenzun banaak; ta dirianak dira zetarako, edo atarako; eskuak, bear egiten dabe; begiak, ikusi; belarriak, entzun.

Ez jake eskatuten surrai, ikustea; ez begiai, entzutea; bai, bakotxari jagokana egitea. Era onetara munduko gorputzean, batzuk egiten ditu Jangoikoak nekatzalle, beste batzuk beste ofizio-dunak; baña guztiak izan bear dabe zerbait on egiteko. Ezain badirudi, begiak ez ikustea; zer irudingo dau gizon bat ez ezertako izateak?

Bostkarren propositua

Ardura andi bat ondo emoteko denporea, bada da balio andikoa; ta bein galdurik, betiko galtzen da. Alan, erago beti gauz onen bati; ta onak uten daian zerurako, euki beti gogoan Jesus, ta egin borondate onagaz. Arraiñak burua uretan jasoten daben legez, ni-pere jasoko dot sarri nire biotza Jesus gana, ta esango deusat: O Jesus maitea, indazu arren grazia



neure estaduko premiñak betetako, neure umeak ondo azteko, neure etxea zuzen erabilteko.

Bai neure arimea, auxe eginik zeure lan-bearretan, ain agradu andikoa izango da Jesusentzat, zein erlijiosa bat koruan oraziñoan dagoanean. San Isidro irabazten eban zerua soloko bearretan; san Krispin, ta Krispinianok oñekoak josten; san Sebastianek gerran peleetan; santa Katalina Senakoak suateko lan ta tresnak garbietan; santa Franziska Erromatarrak obediturik bere senarrari, ta bere etxeko gobernu onagaz. O aimak, zetako alan egiten eztozue bada bide batez arinduko dozue bearra, ta irabaziko dozue ain bear-sari andia!

Seigarren propositua

Paseoa, jokia, debrsiñoa eztodaz artuko, ezpada onak dirianean, ta bere neurrian, gatza legez, ez ekandu-oituraz, ta ofiziotzat; gatza legez; Ezarten deutzazu jatekoari eskutadaz? Ez, ezpada garauka, gitxitxo; onelan, ta onetan zuzendurik Jangoikoari, irabazi ziñei zeru asko. Paseoan nabillenean, zerura joan al-izanik; jokoan gloria irabazi al badot, zetako galduko dot? Enas zoro bat izango? Bai.

Zazpigarren propositua

Gogo sendo bat ez jausteko bekatu txikietan; nik ontzat epadaroa-daz, bestek egiten deustazan irain, ta ofensa txiker arinenak, zegaitik nik egingo deutsedaz neure Jangoiko onari? Eta egiten badeutsadaz, esango dot, maite dodala? Baldinbere, bekatu txikerrenak aurretuten dau zerbait, bekatu mortalean jaustea; jaramoten ezpadeutset, txikiak dirialako, segurubere laprast egingot nagusietara; eta nire zoriontasunaz alan gerta ez-arren, izango nas arima etiku argal bat legez. Emo-lei errukitasun andiagorik?

Zortzigarren propositua

Argaltasunez jausten banas bekatu arinetan, bertatik biurtutko nas Jangoikoa gana, (baña izu-itsutu baga), eta nagoanean bakarrean, etxungo nas, parkeske, lurrean. Au baño geiago egiten eztot katarro bat dodanean? Eta zein da bietarik gatx andiago? Ai! lorak jaten dituan arrak ilten dodaz; zegaitik bada itxiko dodaz bizi-bizkorrik bertutea jaten deusteenak?

Bederatzigarren propositua

Nire adu-gaistoz jausten banas bekatu mortalean: O Jesus maitea! eztira asko geiegi ta lar lenagokoak? alanbere jausten banas, diñot, laster laster, milla bider laster, ta bertati arin egingo dot konfesoarearen oñetara; baña lenago Jesu Kristoren oñetara; emen urtuko nas negarrez, ta bigun-samurturik ondo ondo neure biotza, ta barau, ta oraziño luzeren bat lenago eginik, konfesauko nas bereala.



IRAUN-GARRIAK IRAUN-ERAZOTEN LORA ONEI IÑOS IGARTU, TA EZAINDU BAGA

Lenengo irau-garria

Sarritu sakramentuak, baña deboziño guztiz andiaz, eta aurrerantzean onduteko gogo benetakoaz; ez modara, konfesiñorik bekatura; bekaturik konfesiñora, betiko inguruan; au da burlazar ibiltea. Damu egiazkoaz; onetarako uste-izan, orain egiten noian konfesiñoa dala ezkenngo. Zer alan balitz? Zer alan dala, angeru batek esango baleust?

Bigarren irau-garria

Abogadu letradun, ta mediku osagilla onenen atzean banabil, zegaitik billatuko eztot konfesorarik angeruzkoena? Orren gitxi joat? Ez dot onen bear geiago? Itsuak beste itsu bat badaroa, zer jazoko da? bata, ta bestea ondatutea.

Irugarren irau-garria

Egunean ordu erdiko irakurtza santua, ta beste ordu erdiko oraziñoa. Au baño geiago emoten eztot gorputz ustel onegaz? Arimeari zor etxako ardurarik? Enda zer? Neke andia da, seme batek berba-egitea bere aitagaz, ta Jesus lako aita bategaz? Onetan gagozan, eze, lorai ezarten ezpaiake ura, igartuko dira laster.

Eztakigu oraziño egiten? Lotsatu gaitean; baña len bere ez genkian irakurten, ta eskribietan. Oituraz ekiñaz ikasi dogu; eldu gaitean Jesus gana, ze berak irakatsiko deusku. Oraziño lan-geiak izan bitez azkenengoak, au da, eriotzea, juizioa, infernua, ta gloria; eta Jesu Kristoren pasiño santua izan bedi eguneango ogia; berau da guztia gozotu, ta erraztuten daben ogia, ta ezta; bera da espillua, non apaindu bear garean, humildu, ta beeratu, ikusirik bere humiltasuna.

Laugarren irau-garria

Beti geure gogoan erabiltea Jesus, da ermuko janari zeruzkoa, gauza guztira emoten dabena; argala, sendotuten dau; triste, poztuten dau. Jesusen gomutea baxen ze gauza gozoagorik? Milla bider begiratuko deustat arimeko begiak; eta uste-izango dot, dakusdala krutze astun bate-

gaz lepoan, ta diraustala: Semea, bakutsu, ze maite zaitudan? Ofendidu nei onelan? Geiago: itxi nei; biotz guztirik bere ontasuna ez maite izatea? Bekatu egiten dot? Bai; baña da, aztuten dodalako: *desolatione desolata*.

Bostkarren irau-garria

Deboziño guztiz andi bat, guztiz biotzeko bat ama Birjiña txito san-teari. Maite eztabenak Maria, zetarako dau biotza? atera bear leuskioe. Edertasun zale bagara, non andiagorik? O Maria guztiz sotil eder maite-garria? Baña deboziño onek balio eztau, ezpada egiazkoa. Errosarioa, dira gauz onak, baña o Ama nirea! Zu, ta zure seme Jesus lastana ofendietan baldin bazaituedaz, zetarako dot zu alabetea? Alan bada, bere seme egiazkoak izateko, euki bear da biotz garbi bat; eta jarraitu bere bertute miragarriai, batez bere humiltasuna, garbitasuna, pazientzia, karidadea. Semeak irudin bear dabe euren amai.

Seigarren irau-garria

San Josepe zorionekoa izango da nire biotzeko kutuna; san Migel nire bitartekoa; angeru gordetzallea nire lagun, ta adiskida; purgatorioko arima bedeinkatuak iños aztuko eztodaz.

Zazpigarren irau-garria

Limosnea izango da nire bertuterik maiteena; bada bera da bertute miragarriena; baña eztot egingo limosnea, besteai ostuagaz; eta neure errentari beartsu gixa-gaisoakaz errukia erakustea, izango da nire ezaugarriarik maiterena. Ezta errukia, ikustea atsekabaz, ta neke-peturik aek eurak, zeintzuetatik jatort nire zorientasuna? neke-bear gogor latzakaz betetan deuskuez erregaluz gure maiak; eta eurenentan arto gitxi bat bere eztago aldi askotan.

Zelan da, bada, au? Ona emen: geitu da guztiz asko baneria; mantendu gura da bere oñean andikeria; eta onetarako ain estura, ta premiña errukigarrian ifinten dituez euren errentariak, eze, ozta oneek atera alda-be eguneango igaro-pide gitxi bat. Da au prestutasuna? Ezta au gogortaderik ezainena? Bai, ta ondo negargarria, bizi garealako, gure eretxian, erarik argiengan! O argitasun zori gaistokoa, ta ze itsuturik, ta zorabiatu-rik garabiltzuzan!

Alan bada neure errentore gixajoak eroango babe aurrerantzean nire errukitasuna; egingot alegiña, albait ondoen ifinteko euren bizi-lekuak; eztot egingo oi dabena Jabe askok, zeintzuk errentea osorik, ta aurraturik eroanik, eztauke ardurarik, etxe jausi-banatuak ondu, ta zuzenduteko. Eta



zer, etxeak badira ain ganora bakoak, non, alakr ta erabatera lo egin bear izaten dabe nasturik era guztiko personak aposentu baten, ta au dagoanean? Ha! osasunak ezeze, askozaz kalte-gatx andiangoak eroan bear izaten ditu garbitasun, edo honestidadeak! Zeinbat arima galtzen dirian onelan alkar nastauaz! O gurosoak! O etxe jabeak!

Orrez geiago: egingo dodaz aldaidazan limosnak, baña bere moduan; au da, eztot eurekaz emongo biderik ñori alperrak urteteko, baña bai beargillak, ta ontsuak egiteko pobreak. O zeinbat bendiziño, itzadoten dodan, eroango dituala Jangoikoa ganik, dazaudan persona bertuosa, ta nagusi batek! ara zer egin daroan: dauko alde batera pobren ondasuna deituten deutan irabazte bat; beragaz erosten dau kirru pilo bat, zein emoten dau andra gorulari beartsuai; ta euna eginik, ta saldurik; eta aterarik kostazana barriri asiteko, ganeko guztia emoten deutse gorulari pobreai, euren neke, ta beartasunak eskatuten daben legez. Alan alde egiten dau alperreria ta gaistakeria; alan irakasten dau ondo bear egiten; eta erabatera on egiten deutse gorputz, ta arimai; aei, bear-sariaz sokorridurik; ta onei, urrindurik alperkeria, gaistakeria guztien ekarlea. Eta agaitik deritxat txito ondo pobre eskekoen on, ta bearrerako egiten dirian miserikordiaren etxeak; ta nire aldetik beti egingo dot alegina, alan egin, ta gorde ditezen.

Zaletu nadin, limosna egitera, eukiko dodaz beti josirik nire biotzean iru egia oneek: lenengoa, enasala ni neure ondasunen jabea, ezpada jabeorde begiratzalle Jangoikoak ifiniko bat, zeinek artuko badeust berba alper baten kontu estua, estuago artuko deust, nire erruz galduten dan, lauziri giñokoa, zerren zerbait geiago dan.

Bigarrena, ondra apur bat, ta on-erexi utsa bat irabazten badot lau gizon buru bakoan aurrean, emonik neure ondasunak baneria, ta andikerian, galtzen dot gloria egiazkoa, bai ta neure on-erexia gizon prestuen aurrerako. Azkenez, Jangoikoak euki daian nigaz errukia, bitartekorik andiena da, neuk besteakaz eukitea. Ezta au Jangoikoak emonik daukan berbea? Izan liteke ni baño prestutasun, ta miserikordia gitxiagokoa? Enda biurtzen badodaz begiak nire bizitzara, eukiko ete dot Jangoikoaren errukitasun, ta ontasunen bearrrik?

Zortzigarren irau-garria

Urtean bein ejerzizio santuak, neure etxean baño brere izango ezpada; ta ille bakotxean bakartasuneko egun bat, lan santuai emoten deustadala.

Bederatzigarren irau-garria

Goxean eskiñi Jangoikoari egun atako egikerak; egi-kai, edo akto fedekoak, proposituak azpituteko pasiño, edo bizio agintaria; iru Abe maria Ama Birjiñari; Mezeta deboziñoaz; eta egun guztiko lan-bear santuetan Jesus gogotik ños kendu baga. Arratsean, esaminea, akto kontriziñoak; eta uste-izan, natzan oea dagoala krutzearen oñetan, ez aztu Jesus, ta maitetu gozotasunaz.

Amargarren irau-garria

Astero egin neke bat, zelan dan barau bat, edo itxi jan baga au, edo beste kopau zalegarria, edo frutea. Nekaldi, edo mortifikaziñoa da gatz espiritual; gatz baga ustelduten da aragia; nekegarri baga galtzen da bertutea. Gatz baga gauza ezta jatekoa; ta deboziñoa bere ez, mortifikaziño baga; izan bedi gatz legez, baña bere neurrian.

Amakagarren irau-garria

Astean bein barrirotu propositu oneek, baña ardura geiagoz bakartasuneko egunean, irakurririk eurok beti belauniko. O Jangoikoa! Eztot egingo ain gauza erraz bat zure amore gaitik, ta nire arimearen onerako? Bai, zure grazia, ta laguntzaz.



BERTUTERIK ONEN, TA BEARRENEN LORA-SORTA BAT

Lenengo bertutea

Humiltasuna, berau da bertute guztien sustraia; berau baga zer bait irudi leie, iraun ez; da bertute-kume asko dituan ama. Irabazten dabena, izango da zorionekoa, zerren eukiko ditu ondasun guztiak. Zeinbat nagusiago zarean, ainbat geiago humildu bear zara; *lenengo*, goitura, arrotasun, ta andi-ustez geiago galduko zendukelako; *bigarren*, gagozalako argaltasunez, ta doakabaz beterik, ta eurok dira asko humildu, ta beeratuteko gizonik panparroiena; *irugarren*, doguzan doeak zer dira ezpada zorrak? Ta nor poztuko da, zor andiak eukitea gaitik? Alangorik bada, adietan emoen dau, zenzun gitxi daukala. Azkenez, geiago artu dabena, geiago zor dau; ta eztago zoriona kontu luzea emotean, ezpada ondo emotean.

Bigarren bertutea

Pazientzia, edo onez-igarotea, da humiltasunaren alaba-len-jaiola; eztago au, baxu berba egitean; burua, ta begiak beranz erabiltean. Pazientzia edo eroa-pena da menast-arria zeintean ezagutzen dan humiltasuna; bada ainbat humiltasun eukiko dau batek, zeinbat pazientzia.

Pazientzia, datorrela datorren eskutik. Jangoikoa ganik badator, etorri leite esku oberik? badator kriaturak ganik, Jangoikoaren mandatariak dira, eta bere agindua egiten dabe gure onerako. Daigun, besteak bekatu egiten dabela ni illarazo, suminfu, ta gogaerazoteaz; baña nik asko irabaziko dot sufrieteaz. Eta zer doa, nik atarako biderik emon ezeiteaz? Ai! Ez jatort obeto, jarraitutea Jesusi, eze ez lapur onari? Igarotea erru baga, beragaz baño? Kalbarioko iru krutzetatik zeinegaz ezpada Jesusenagaz laztandu bear nas? Argaltasun andia! Izan seiñkeria bat igaroten dodana; euki ainbeste, zegaitik padezidu; ta izatea ain bildurtial!

Zelan eukiko nas Jesusen jarraitzalletzat; bere maite-laztantzat, atz bategaz arinduten ezpadot bere krutzea? Azkenez, gogoratu bear dot, neure gurariz ez jatordazan neke txikiak, estimagarriak diriala Jangoikoaren begietan.

Aurreratuko nintzateke, esatera, izan arren guztiz estimagarria penitentziako neke, oraindo ontza bat pazientziagaz geiago balio dabella, libra bat neke-pen borondatezkoak baño. Egiaz, eztaukala neke-penak igaroteko egiazko biotzik, esan lei, jazoera txikietan exetu, gogaitu, mukertu, ta

agirika asten danak. O zeinbat arimazxko ondasun galduten doguzan, ajzoten doguz astunagoak gure krutzeak.

Irugarren bertutea

Obedentzia, zerren sakrifizioa baño obeagoa dan; eta alan obedentzia gaitik itxiten dodazanean nai deboziñoak, nai beste lan santuak, ez bakarrik eztot ezer galtzen, baña bai asko irabazten Jesusen aurrerako. Nagitasunez itxitea ezta on, baña largetan dodazanean obedentziaren aginduz, aldatuten dodaz gauza obero.

Jarraitu onetan santa Franziska Erromatarrari. Eukan onek deboziño askoen artean, Ama Birjiñaren ofizio txikerra errezetea; ta berso bat esaten asirik, lau bider eukan zer itxi, egitearren bere senarrak agindu eutsan etxe-bear bat; ez bakarrik etzan kexau, ezpada ain bake, ta epetasun andiaz zein lenengoan, biurtuzan laugarrenez agindua egitera. Orra bada zer jazo zan: biurutrik boskarrenez emotera asierea berso berari, idoro eban erre-gorritzko letraz eskribidurik; gogaiturik santeak obeditu, ta jaramon ezpaletso bere senarrari, esango neuke, angeruak borrauko ebal a bersoa, edo bearbada erreko ebal librua, adierazoteko, Maria santisimari egin aleion egitekorik onena, ta maitegarriena, zala, nagusien agindura prest egotea.

Laugarren bertutea

Angeruzko *garbitasuna* edo *kastidatea*; au eukitea tentamenduak asmau baga, ezin litzeteke; baña goi-artuten badodaz Jesusen graziaz, gloria geiago eukiko dot. Orretarako, O neure Jauna! indazu grazia alde-egiteko okasiño txarrak, gorde ta jagoteko neure almen, ta zenzunak, eta deboziñoa, irauteko ondo oraziñoan. Berau da almibera zeinetan gorde-tan dan ezaindu baga kastidate lora argal-mea.

Asmetan dodazanean gogoraziño, ta tentaziñoak, enas izututko, ezpada, usoak usategira legez, egaz-egingo dot laster, ta estal-petuko nas Jesusen biotzean, an sendatu, ta erre nagiantzat bere amorezko suaz.

Gagozan beti onetan, eztala irabazten bitoriarik pelea baga; Jangoikoak gura gaituala gerrariak, ez ollotu-bildurtiak; ta tentamendu gogaikarren artean idoroten gareanean, eztoqu uste-izan-bear aztu gaituala, ezpada, sal-sendoak gura gaituala.

Zelanbere, o eta ze tentaziño bildurgarriak igaro zituezan santa Teresak, santa Katalinak, santa Anjelak, san Benitok, san Agustinek, aita san Franziskok, ta beste santu askok! Baña ze gloria andia irabazi ez eben?



Gura dogu guk izan onetan, santu miragarriok baxen zorionekoagoak; edo joan zerura, eurok joaz etzirian beste biden batetik?

Egin daigun gure aldetik jatorkuna, zelan dan, len esan dodana, urrindu belatuzko okasiño, lagun ta bide galduetatik, beti daragoiot oni, bai, bein edo bein aditu daizuen, gorde gorputzeko zenzun edo sentiduak; oraziñoa; nekegarria, ze, au eginik zuen Jangoikoaren laguntzaz, ganekoa egingo dau Jaunak bere graziaz. Baña kontu, esango dot milla bider, egi-teaz zeuroen aldetik dagoana; zerren bestela erakeri azartua izango liteke, gura-izatea, ez ezaindu kastidade, edo garbitasuna, ifinirik pelligruan, sarturik okasiñoan, erabillirik deslai zabaldurik sentiduak.

Bada santa Teresa batek, san Franzisko Salesek, eta berba baten, edozein santu garbienak, gura-izan balebe gorde garbitasuna, urrindu бага pelligruzko okasiñoetatik, edo emonik alperkeria, jan-edan larretara, benetan diñot, marai bat emongo enukela euren garbitasun guztia gaitik. Zer bada, san Jeronimo batek argaldurik penitentiakaz, sarturik Belengo lurruspe leze estu baten, egonik gau ta egun oraziñoan, eukan zereginik asko, gordetean bere garbitasuna; zuek barriz gogo guztiaz sarturik munduan, ta bere gal-bide bildurgarrietan, ta eukirik biotza mundutasunez beterik, gura dozue goiartu, ta goiartu arma бага; ta orrezaz geiago, zeurok bizturik tentaziñoak?

Zetako da, esatea, argalak gara, baldin sendotu bearrean oraziñoan, zeurok bazabiltze aragiaren su-biztugarrien billa? Zeurok kondetan zara. Ez bada egotzi errua munduari, ta bere okertasunari; mundu onetan, gaistoa bada bere, euki ditu Jangoikoak, ta daukaz gaur arima guztiz onak, zeintzuei jarraitu giñeie. Daigun arimearen gaxetan, egin oi doguna gorputzekoetan, artu sendagarriak.

Bostkarren bertutea

Modestia moduzkotasuna edo modu ona, baña gauza guztietan, begietan, miñean, ibiltetan, jantzitean, bai onek izan bear dau nire apaindurarik maitenak; berak egiten dau bat estimagarria Jangoiko ta gizonen begietan; baneriak barriz, ta arrotasunak egiten dabe gorrotogarria, ta daroe ondamendira. Bai bada, moduzkoa izango nas gauza guztietan; enas iños mukertu, ta itsaltuko; pozik bai, baña Jesusegan; ta beti ikusiko nabe modu, ta txera argian. Kotorrak adierazoten dabe eruen poza berba asko egiñaz; arkumeak saltuka. Ondo legoke nik alan egiteaz? Ez ori.

Seigarren bertutea

Karidadea, da bertute guztien erregiña, ta bai euren arimea bere; bera бага ots andiak emo-leiz bertuteak, baña beti izango dira utsak. Ardura andiaz jagongo dodaz bere ego biak. *Lenengoa*, maitetasun benetako bat neure Jangoiko laztanari, gogoraturik, bera laztan-maite dabenak, gorde-tan dabela bere lege santua.

Bigarrena, biotzeko maitetasun egiazko bat neure projimu edo lagun urkoari; baña ez aozko maitetasuna bakarrik, ezpada aozaz, ta biotzaz; esate, ta egiteaz. Orrela bada, ze gorroto andia artu bear ezteutzet murmuraziño, ta esate gaistoai? Danik txikerrena alde egingo dot Jesuen graziaz. Murmuraziñoa da karidadea ezainduten daben sitsa. Errukigarria litzateke ainbeste gaxt laketutea. Ontzat eroango zenduke zeure jaztekoan? Ez; ta ariman? Bai: arima gixajoa!

Bestetan esana esan, ezta la gauza aozko karidadea bakarrik, diño san Juanek. Ara bere berbak: balekus batek bear-premiñaturik bere anajea, ta itxiko baleuskioz bere erraiak, ezer emon бага, zelan iraungo dau bera-gan karidadeak? Beste onenbeste diño Santiagok txito ederto: baldin zure anajea, edo arrebea arkietan badira billosik, ta goseak-illik, ta zuk orduan berba gozo labanakaz esaten badeutsezu: ea zoaze edo nonbere beroetara, ta gosea kentzera; baña eurak bear dabena, emoten ezpadeutsezu, *quid proderit?* Zer dabe ori esateaz? Ezagutu egizue bein, edo bein.

Zazpigarren bertutea

Deskonfianza noberagan, ta *konfianza* Jangoikoagan; biak batera, ta neurri bardinean. Batek berez bakarrik ezin lei ezer, baña guztia Jesusen graziaz batan. Txoritxo batek ezin egaz-egin dau ego bakar bategaz, baña biakaz ze erraz eztau egiten? Alan, danik arimerik txikerrenak Jesusen graziaz batean, egaz-egin lei santutasunik andienara.

Ze errukia! Uste-izatea, santutasuna bakarrik egin zala komentoetarako! Bada zer, estadu bakotxa ezta bertutezko bide bat? Mundukoak ez-tira bardin Jesussen arimak? Etzan bardin ill eurekaitik? Ezteutse dei-egiten, erlijioño arimai legez? Eztau guztiakaz berba-egiten, diñoanean: *izan zaitze onak, zeuroen aita zerukoa dan legez?* Gaurko egunez eztaukaz arima txito onak mundukoen artean? Eta alan ezpalitz zer litzateke munduaz?

Dazaugun bada aldien baten, ze, erlijioño estadia bada bere guztiz miragarria, ta erraz daroiana santutasunera, baña ezta guztientzat premiñazkoa, guztiok gagozala bearturik perfeziñozko estadura bide-egitera; onek izan bear-leukala gure zeregiñik ardurazkoena; bada ganeko guztiak



onen aldean ezer ez tira. Bada egiaz, denpora gitxi barru zetarako doguz ganeko gauzak? *quid prodest homini*. O Jauna, zabaldu egiguzuz begiak.

Zortzigarren bertutea

Intenziño edo *gogo garbia*, zuzendurik gauza guztiak Jangoikoa ganantz; lenengo, oitu, ta ekanduko enas egitera neure egitekoak ganora baga, ta epeltasunaz. Ai! eta zeinbat galtzen dogun, alan ez egitea gaitik! Zer aterako dogu, egiteaz gauzak animalia, edo abereak legez? Bai bada, izan bedi guztia gogo garbi bizi, ta gurari andiaz Jesusi agradetako; alan, gauzarik txikiak urtengo dau andiak; ta egitekorik zantarrena izango da txito nagusia.

Ze gauza txikerra dna diamantea! Baña balio andikoa. Alakoak izango dira nire egitekorik txikitxoak. Geli-okela ondo ifiniak, eperra dirudi; baña ondo ifinten ezpada gauza ezta ezpada katuai ezarteko. Eztakutsue zeinbat balio daben gisu on batek? Jangoikoaren gauzetan geiago balio dau a modu, ta intenziño onak zeinegaz egiten dan gauzea, gauza berak baño.

Bigarren, eztozaz egingo gauzak, munduari ondo eretxitarren; baña eztozaz itxiko, asmau arren v. g. baneria, zerren, zelan liteke ez asmetea onelako axe utsak? dira euliak legez, ta eurai jaramon baga, jarraitu bear deusatz gogo garbiaz neure bearrari; egiten dodan legez, irakurten, edo eskribietan nagoanean, bada enas geratuten euliak joten; galduko neunke denporea, ta pazienza. Aurrera, baña esan dodan legez, intenziño ta gogo on bat euki bear dot Jesus billatu, ta berari gustu emoteko.

Bestela, ze erakeria andia ez liteke izango, autsa, lurra, ta axearen billa ibiltea zeregin ta lan santuetan? Eta bitarik bat: edo pagetan deust munduak egiten dodana bera gaitik, edo ez; pagetan badeust, Jesusek esango deust azkeneko egunean: *recepisti mercedem tuam*. artu zenduan zeure bear-saria. Pagetan ezpadeust munduak, esango deust Jesusek, ezer zor ezteustala, zerren eneban bear-egin beretzat ta bere maitetasuna gaitik, eta jakin bear neban, enebala serbidu bear mundua lango ugazaba billau prestuez bat.

Bederatzigarren bertutea

Sendotasuna. Lenengo, irauteko azkenengo ordu giño neure lanean; bada bakarrik alan dirauanari emoten jako bear-saria. Bigarren, ez nagitu, ta nasaituteko neure ejerzizio santuetan, asmau arren epeltasun, atzerakuntza, nagitasun, ta iluntasunik andienak. Aurrera, ze aldatsa igorik, idoroko dot bide zelaia. Erromeria batera igoteko aldats-gorak, ta neke-izar-

di guztiak aztu-erazo, ta gozotuten badeustaz, noian lekuko gomute gozoak; Ai Jauna! zeru ederrak, zeinetara noian, zeinbat geiago biztu, ta poztu bear nau?

Neure Jesus maiteak igoten dau Kalbarioko mendira aranzaz koroiturik, ta krutze astunaz lepoan; eta nik bekatari onek gura dot igo zerura loraz koroiturik, ta neke gitxi bat kosta baga? Zetan erakutsiko dot nire amore? Zer legoke orduan zer saritu? Olgura, ta atsegiñik idoroten ezpadot, asko izango da, Jesus kontentu eukiteaz. Eta ezator ondo, ni izatea, ume txikiak legez, zeintzuk ezpadakusde prest konfit gozoa, nagitasun andiaz ibiltzen dira.

Sendotasuna, osterabere, ez ollotu, ta bildurtuteko tentaziñoetan, dirianak diriala, ta edozein bertuten kontra. Gerra utsa da gizonen bizitza; edo ill, edo esetsi. Zetako ditu Erregeak soldaduak? Eta nos zoriondu, ta sarituten ditu, ezpada leialak dirianean? Alantxe egiten dau Jangoikoak peleetan dabenakaz sendotasun irmeaz.

Milla bider esango dot: urrindu zaitzeela okasiñoetako bide galdue-tatik; maite izan daizuela oraziñoa, ta nekezko mortifikaziñoa; etzaitzeela bildurtu; estalpetu, ta ezkutu zaitzeela, erleak erla-tegira, ta txoriak orma zuloetara legez, alan zuek bere eskutau, ta egaz-egin daizuela Jesuen bost lllaga gozoetara; an idoroko dozuez pozkari, ta zoriontasun guztiak.

Ikusten gareanean tentaziñoan, ez ta señaile, Jesussek aztu gaituela; baña bai, bere urrean euki gura gaituela. Ai! ze, onetan, ume txikiak legez gara. Ume txikerrak olgetan euren gustura dabiltzenez, eztauke euren amaren gomuterik; baña jazoten bajake gatx-min gitxi bat, orduan lenengo gomutea ta deia da euren amarena, ta bereala doaz bere altzora. Apostolu santuak itxasoan ondo ebiltzen artean, itxi eutsen Jesusi lo-egiten; irazartu eben gero, baña zan, ekatx bildurgarria asmau ebenean.

Orrez geiago dira tentaziñoak, gu humilduteko; zur zoliak egiteko; bertutean sustraituteko, gu sendotu, segurutu, ta zorionduteko. Eta zetako ez? Ai! ze ondasun asko ta ugariak dakardezan! O geure Jangoikoaren probidenzia miragarria! Baña zu nire arimea beeratu, ta humildu zaitte, ta eldu zaitte beti Jauna gana. Emonik dau bere berbea, lagunduko deustala; eta Jangoikoa egonik zure aldetik, nore bildur izango zara? Alan, galdu ez egizu bein-bere zure biotzeko bakea, ta Jangoikoagan itxaromena.



LOLLO, EDO BEDAR GAISTOZKO SORTA BAT ERRETAKO SURTAN

Danik onena izan arren soloan ereinten dan azia, ardura andiaz ateretan ezpadira lollo, ta bedar txarrak, frutu gitxi, urri, ta meatzak emongo ditu. Ea, jaramon ez egizue, ta ikusiko dozue, lo-zorrora emoten bazara, ze zur-irazarria egongo dan gizonaren arerio asmutsua, ta ereingo dau lolloa, zuek erein dozuen azi onaren ganean, utsak, ta prestuezak urten dagien zuen bear-neke guztiak.

Agaitik bada, zoli, ta prest egon bear dozue, erein ez daian, ta ereinten badau, bedar txarrak azi, ta ito eztagiezan bertutezko lora ederrak. Ail Gure lenengo gurasoak bekatu egin ebanik, lar-bere geratu-zan gure biotza makurturik, ta gai gatx guztietarako. Bada orregaitik, aramen non opa deusuedazan atera, ta erre bear dozuezan bedar gaistoak; izan ditezen zuen biotzak lorategi maitegarriak Jesusentzat.

Lenengo bedar txarra

Lenengo, aldaizuen guztia urrindu bear zara dantzeetatik, komedia, zezen, erromeria, ta bisita kostotsuetatik; gizon ta andreen batzarretatik, eztirianean premiñazkoak. Bai, zerren ezta erraz jakitea, ze kalte gogorrek dakazen oneek guztiok, ta zeintzuk euretarik egiten dituen gatx andia-goak gure ariman.

Esango dozue, gauza gatxa, ta neke andia dala, dibersiño oneek lar-gatea. Bañ nik diñot, eun bider gatxago dala, baneria ta dibersiño oneek maite izanik, Jangoikoaren lege gordetea. Eta esan: etzagoze bearturik lege santuau gordetara, ezetan ausi baga? Begira bada, egarriak illik dagoan gaiso bat, errazago egongo danez edan baga, urik estakusenean, ala bere aurrean, ta bere eskuetan basu bete ur garbi-otz ifinten deusenean.

Bigarren, eztagoz beste milla dibersiño oneekj baxen obagoak, pelligrurik, ta gal-biderik ezta kardenak? Guri ondo ezpaderitxagu egin ebena Adan ta Eba gure lenengo gurasoak, itxirik beste fruta gozo eder asko, jan ebelako Jangoikoak eragotzi eutsen frutu galazoa, zergaitik gura deusagu jarraitu euren erakeria ezainari? Galarazoa daukagu gozoagotzat? Ezta itsutasun ikaragarria?

Eukirik bere aukeran edari bi; bata gozoa, baña edendua; bestea ez ain gozoa, baña osasuntsuagoa, au itxi ta bestea edango baleu, ez geunke esango zenzunik ez eukala? Baña gitxi diñot; bada gozoago baderitxagu

gauza eragotziari, da, aoa mindurik daukagulako. Gaiso batek jatekorik onena dauko garratz-mintzat.

Orrez ostein, orain neke-gatx egiten bajat itxitea naiera gitxi batzuk, eukirik beste dibersiño bekatu eztirian asko; zer izango da egotea beti-betiko erretan infernuan, pozkari, ta dibersiño oneek baga?

Esan dot, *aldaizuen guztia urrindu zaitzezela*, zerren onetariko gauza batzuk, v, g, dantzak premiñazko aldiren baten laketu litekez; baña eun kondiziñogaz dantzea baño len, dantzan, ta dantza ostein. Irakurri egizue onen ganean san Franzisko Sales bere *sart-aurrean*.

Bigarren bedar txarra

Joko luza ta diru askotakoa. Au baga bere bago zetan emon dirua, ta denporea, zeintzuk ezeutsuezan emon Jangoikoak onetan urtu, ta gal-duteko. Bago zorrik? Bago seme alabarik? Bago pobre eskekorik? Zer bada, gustia emongo joko dibersiñoari?

Irugarren bedar txarra

Kuartelak gitxitu bear dira sko, irudi arren onak; bada esan ze, gau bakotxean emon bear diriala ordu bi, edo iru utsik; eta au ez lan-neke-bear andiak igaro ezkerro, ezpada paseo, ta dibersiño ostein; adiskidakaz berbaz luzero egon ezkerro; maitik jagi zanik, ez gox guztian anis garau batek balio daben dun beste gauzarik egin ezik; esan, ain denpora luza emongo dala dibersiñoan, ez eukirik ordu lauren bat, libru on bat irakurteko, ta beste bat meditaziño, ta gure arimeko lan santu bearren dogunean emoteko; esan gure etxeko familia eukiko dogula azturik, ta gogaiturik gure begira; ta gogaerazoko deusagula geiago, kuarletek belu, aldi txar-rekoak, ta aserraturik gatozelako, edo jokoan dirua galdu dogulako, edo lartxo edan dogulako; esan azkenez, berandu joango gareala oera, itxirik errosarioa, esan daien etxekoak, edo lenago erreza ebalako; eta belu etxunik, belu jagi, ta gox geiena emongo dogula, ezer egin baga; ondo deritxazue oni? Eta au guzti au eukiko dozue gauza ontzat, santutzat, merezimendutzat beti iraungo daben zeruko gloriarako? O alperreria santual esango neuke, alan balitz; baña ezta au itsutasun ikaragarri bat?

Laugarren bedar txarra

Bisita luzeak, ta sarritakoak ez tira gitxitu bear esan dodazan errazoiakaitik? Etxeko otseñak badakie, ze egunetan, ta ze ordutan doazan etxeandak bisitara, etxake faltako eurai bere nok bisitau daizen. Au alan da, alan ikusten da, ta ezagutzen dira emetik datozen gaistakeriak, baña



jaramoten ezta. Jesusek itxiten eban oraziñoa, bere ikasleak zaindu, ta jagotarren.

Bai, askok urtengo dabe arako esate ondo esana, baña ez ondo adituaz: len dala deboziñoa baño obligaziñoa; au esaten dabe, iges egin gura dabenean oraziñotik, elexatik, Jangoikoaren gauzetatik; baña eztabe alan uste, gitxituteko bisitak, paseoa, loa, oean luzero ta loaz aspertu artean egotea. Ze itsutasuna!

Enda zer, kuartel, ta bisitetan batzen badira erabatera gizon, ta emakumeak? Onelako batzar nastuak bildurgarriak dira, onak, ta angeruzkoak izan arren personak. Milla gauza esaneiz onen ganean; baña eztot ixilduko san Agustinek dirauskuna; diño bada: San Jeronimo, ta san Ambrosio baño sendoagoak zirudienak, erakutsi ebela euren argaltasuna, sarriturik okasiñoa, ta ifinirik pelligruan. Zetako bada gagoz orren segurutzat? Sartu daigun eskua bularrean, ta idoroten ezpadogu, zeri negar egin, bildur izan bear gara, izan ez daitean ori gure egokera txarraren señale adigarria.

Bostkarren bedar txarra

Lotsa-bagetasun edo modu txarra berba-egitean, begiraturean, ibiltetan, zenzun ta ganora бага gauza guztiak egitean; eskutadak, txaloak, barre ta sansoak. Zer doa, nik ez eukitean gogo ta intenziño deungarik? Dauko arerioak. Nik intenziño, ta asmo deungarik euki ezarren, egongo da erre бага lastategia, urtuten badeutsat sua? Zer ezpada sua, dira zuen erakeriok? Zer da gizona, erretako prest ta gai dagoan lasto ta bedar igartua baxen?

Nagusitu eztidin lar librotxo au, itxiten dot emen. Norbera begiratu bedi; ta eskatuten badeutso humiltasunaz argia Jangoikoari, erakutsiko deutso Jaunak, zer itxi, ta zer artu bear daben ona izateko. Artu begi bakotxak j. j. bi dituan konfesore bat, au da jakintsua, ta justua, ta emongo deutzaz adi-bide on bearrenak.

Bakarrrik daukedaz zer adierazo gauza bi. *Lenengoa*, erakeria andiena dala uste-izatea, eldu gintekezela bertute ta santutasunera, egin бага zerbait gure aldetik Jaunaren graziaz batan. Dira bertuteak lorak legez, ta arimea lora-tegi, edo jardin bat legez. Esaizue, eleuke eukiko barregarritzat gizon bat, aserratu, ta kexatuko balitz, ez etorrelako lorarik bere hortuan, berak ez ereinik, ez landurik, ez urik ezarririk, ez lora-landarak ifinirik, ez jaramonik? Onelan bada da esan dogunean; baña alanbere ezta bietan bardin, bada lora-tegia loraz bete lei besteen eskuz, ta bitartez; baña arimea norberak ta ez bestek landu lei.

Arimeko apaindurea ezta gorputzekoa legez; au ederrik dabillen, asko da dendari batek jazteko eder bat jostea, ta urre-gillak joia perla galantak emotea; baña arimeko soñeko polita norberak josi bear dau. San Agustinek diño, zu ezer-ezetik, ta zuk ezer-bere egin бага sortu zinduan Jangoikoak; baña etzaituz salbaduko zeu бага, edo zeure aldetik alegiña egin бага. Grazia da bearrena, bera бага ezin giñei ezer, baña beragaz batean ekin bear dau gizonak.

Gure Jangoiko maiteak ez bakarrrik gura gaitu zoriondu, ta doatsutu zeruan, baita bere gura dau, guk pere euki daigula pozkaria, guk geuroi zor izatea zerbait a zoriontasuna; koroitu, ta sarituten gaituz; baña gura dau, geuk landu daigun koroia.

Bigarren, zer dira ganeko gauza guztiak gure arimen aldean? Salbetan bagara, zer joaku, biziko garean lau egunetan zerbait txikiagoak izatea? Kondenetan bagara, ze on egingo deusku, oraingo lau egunetan zorionekoak izateak? Iges doaz gure egunak; ez, egaz doaz. Ze laburrak egiten jakuzan igaroko urteak! Urrengoak izango dira luzeagoak? Baña nok daki izango dirianez urteak, ala egunak? Ordu baten segurantzarik eztaukat; bada zer egiten dot? Zergaitik, bada, dot ain maite daukadan ondra gitxi au? Lau egun iraungo daben bizitza gaitik bear latz-gogorak egiten dodaz, ta bear-neke arina egingo jat gatx, irabaztko betiko irautea daben zoriontasuna?

Aztu ez egizuz beinbere nire aita san Franziskok bere semeai esan oi zituan adi-bide zeruzko oneek: *O neure anaje guztiz maiteak, ta betiko seme biotzekoak; enzun nagizue, ta aditu egizuez zeuroen aitaren berbak:*

Gauz andiak opa genduzan,
Andiagoak opa jakuz;
Gorde daiguzan aek,
Irabazi daiguzan oneek;
Laburra da gozotasuna;
Azken bagea penea;
Arina nekea;
Betirokoa gloria;
Asko dira deituak,
Gitxi autatuak,
Guztientzat dago saria. Amen.